



Iturria: *Bonaparte Ondareko Esquizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa). CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala. Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnonimIrakasdea.htm>

## IRAKASDEAREN ESKUGARRIA

### Anonimoa

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **IRAKASDEAREN ESKUGARRIA**

Manual de instruccion, edo gipuzkoatar bik alkarrekin irukitako izketa, erakuzte ta ikasteko moduaren gañean.

Batari edo irakazleari deritza Jose, eta bezteari edo ikasleari Inazio, biak txit debozio andiko donatian izenak beren errian.



## I itzelkarra

**INAZIO.** Egun on: uztarridi ederra dauka, Jose jauna: Jainkoak bedeinka dezala. Zer dio? ta, nola daude beorren etxeko guztiak?

**JOSE.** Ondo zu serbitzeko, Jaungoikoari ezkerak. Eta, zuek nola bizizate?

**I.** Guziok osasunarekin eta beorren galdez.

**J.** Atsegindet; baitaere zure artaldea mardula ta galanta ikusteaz. Eta, zergatik nizaz eta nere etxekoaz galdetu baño lenago egin diezu diosala nere abereai?

**I.** Menturaz aldakit! Zeren ala ikusi ta adituedan. Gaizki aldago?

**J.** Ezdet esan falta aundia dalako; baño arrazoia dutenak lenago dira ta ez dute aburra merezi ez dutenaren ondoren. Ez det orregatik esan nai oiek irukitu bear ezdirala; eta leku ta eguraldi gaiztoarekin eta joka erabilli bear dirala. Ez orixe; lagundu beartzate: busti ta oztutzen diranean igortu ta berotu, ta gose diranean jaten eman; ez utzi ta ez zatitu abere-rik, zergatik gauza askotarako serbitzen diguten eta esaguerarik ez duten; bada arima salbuta, gure umeak bezela dira, ta ni legegillea banintz gazti-gu aundiak paratuko nituzke abereai eraldi txarrak ematen diezkenentzat. Piztiak bai, persegitu beardira, eta ill eizean animala ta egazti kanpokoak; baitaere etxekoetatik jateko beardiranak. Bañan gure senideak dira abere guztien gañetik, zeren diran begirakizun geiagoren diña; eta anziñako oitura ikusi (sic) ta egiñak utzi bearditugu arrazoizkoak ezpadira.

## II itzelkarra

**JOSE.** Uste det ni bezela zu ere idimerkatura zuatzela.

**IGNAZIO.** Bai jauna, salerosiak nola dijoatzen ikustera, eta ez bada lotzatzen berori nere ondoan joaten lagunduko diot.

**J.** Kontrara, atsegin artukodet alkarrekin joatearekin, zergatik laguna konbeni da bidean, eta batez ere zu bezelako prestua ta alaia izan ezker.

**I.** Ezkerrikasko: kafea ere batean artukodegu; ta goazen itz egiñez amorio onean.

**J.** Beardan bezela, etzera bakarrik; kafea ta txurruta; onelako okasio-tan, geienak artzendute. Au ere modatzat sartuzaigu, ta ikusten dana ez da utzitzen; eta erdigaitza, gero ardoarekin mazpillatzen ezbagera, gaztatu ta gure buruai kordea galtzeraño.

**I.** Gizonak eta alare! Zenbati igarotzen zate au! Baña Jainkori ezker-rrak orandaño libratu naiz onelako estutasunetikan.

**J.** Ez da zori on txikia; eta berriz esaten dizut gure bizian artu ditugun gaigiroak utzi bear ditugula. Guk onela eta emakumeak gutxi gora bera gure antzera, arrasatzen ditugu etxeak. Oiek ollo, ollanda, ollazko bana, edo arraultza batzuen aitzakiakin, juaten dira gure gisara kasi asteoro merkatura, ta txokolatea asko ez balitz bezela edaten dute gañera txurruta, non uzten duten guztia, ta etxean arkitzen dute diruaren eta gauza askoren premia, eta ez txikiagoa lan egin bearzutanaren falta; eta gu ez gera aspertzen aliketa kafea ta ondorengoak artuarte, asko ez balitz bezela gure gaztetasunean gastatzen genduen txiki ardoa ogi koskorrekin, eta premigutxiagoko belartabakoarekin; eta oraindik gaiztoena da umeai ematen diegun ejemplo gaiztoa. Esaten dizut egiatzkiro: nere txiki denboran baño geiago irabazten da gaurko egunean; bañan premiak ere geitu dira, eta etxeak aurreratu bearrean dijoaz atzerontz.

**I.** Eta zer egingo degu, datorrena datorren bezela artu baizik? Eldu gera bada merkatura, ta biurtzean jarraituko diogu gure jolasari.



### III itzelkarra

**JOSE.** Saldu dituan ezkeroztik nere idiak, ekiogun bada, Inazio, gure bideari ta gure izkuntzari; eta ezkerak emanaz zure ondradutasunagatik, esaten dizut txit ezaguera onean goatzela, ta nere uztarridia dedala saiatu indarrean Juantxorenarekin, eta onena andiago ta mardulago izanagatik nireak bide geiago eraman du arria denbora gutxiagoan, eta uste det ez nagia dalako baizik bera joka eta ojuka ibilli dalako; bada purrukatu ditu idi gaixoak atzean jarririk, nagituaz beldurka, batean albo batera, bestean bestera; nik berriz aurretik bakarrik leiatzen nituen ark bezela akullua ta eztarria ausi gabe. Orrelakoak ezaguera gutxiago dute abereak baño, zeñak alaitzen dira bear aña aurretik itz leunakin. Oraiñ esaten dizut erosle asko zala ta ongi pagatzen zutela; eta ikasi bear dezula nik erakutzi naidizua; jakiñaren gañean ere, zuk, eta batez ere zure seme alabak, eta baitaere zure mirabeak, asko irabaziko dezutela; askok uzte duten baño geiogo; ta niri geldituko zait pozgindae andia, oroituaz zuen atsekabe ta damutasunak gutxituko dirala ni naizela medioz.

**IGNAZIO.** Nola bada, Jose jauna? Naiagoko nuke nik ere izan zor au, beste gastuakin egiten dana baño.

**J.** Txit gauza errexak dira bada; ara emen ez dakizuna edo bearrena ikastea penatu gabe, batez ere irakurtzen; bada au jakin ezkeroztik guziak ikasten dira liburutatik. Ni obligatzen naiz bada amoriozko borondate andiarekin zuri erakustea jai egunetan meza ta bespera aurrean eta ondoren eta beste asterdiko batzuetan; baitaere izendatu ditugun merkatu edo pesta, pillota, palenka eta beste joku ta jostatze euskal errian egin oidiran egunetan; eta gero zuk erakutsiko diezu zure semeai ta oiek beren lagun eskolara ezin joan diradenai; ikasidezakete guziak erakutsiaz batak besteari, beren etxetan eta aizkenik etxolatak artzaiak, zuk nerekin bezin errax. Ez pensatu nik nai ez dedala jostatu zaitzen; ezagutzen det txit bearra dala aste guztia bearrean igarotzen duenak egun batean gitxienaz asnasa artu ta bere indarrak gogortu bear dituela berriz lanari erruz ekiteko; baitaere noizik beiñ erbestera juan bear duela. Uztaia lasaitzen ez bada eta geiegi erabiltzen dan txarroa puskatu egitenda. Gañera, nik beste askok baño naiago det gure euskal erriko jostaketak eta oitura anziñakoak gordeditezen; eta oititzen diet biotzetik, egiteko aztu gabe, ez bakarrik leen esandiranak, baizik baiere dantza ta beste jokumota atsegiñ eta gaitzik bageko gure asaba jakintzu ta miragarriak asmatu ta paratu zituztenak.

Guzirako dago denbora, ta komeni zaie indarka ta arrastaka dabiltenai eserita egotea, eta jarrita edo deskansuz igarotzen duenai ta gazte geienai saltoka ibiltzea, baño plazetan.

**I.** Ordea Jauna, dantzak debekatuak daude; apaiz asko, ta batezere gure erretorea, aserratzen dira anitz gauza onen gañean; ainbezteraño ezik, aitortegian larritzen dituzte gazte gajoak deslutura ukatzerano, ta txit bildur dira; ta nik badakit debekazio au gaiztoagoa dana, zergatik neronek ikusi ditut gaiztakeri geiogo ta itxusiagoak etxeetan eta beste bazter ezkutuetan.

**J.** Badakit, eta zorigaitoz; baño badiraere, pozkidazaite nerekin geieintzuak ta bertutez beteak dakitenak plaza agirian pekatuak egiten ez dana, ta agintzen dizte ibilzako joztakera aietan, zeren protxuzkoak dira arimarentzat eta gorputzarentzat, bada ezda oientzat kalte andiagorik nagitasuna baño guziok dakigun bezela, egiazko esagiraren araura; «alfer-tasuna da galgiroaren ama». Alako apaizak dira ezjakiñ berekoiak; ezdute nai gazteak gozatu edo joztatu ditezen; eztaere ikasi dezaten; baizik itxuak eta beren mendean egon ditezen; bada ezdakienari erakusten egon bearrean, kupidazko obrak agintzen duten bezela, naiago dute, batzuek beren arima ta dirua galdu karta ta pillotajokuetan, eta besteak ibilli beroturik, zakur amorratuak bezela pitxa aotik dariotela, eizean egun guztian. Badiraere asko ta asko, beren obligazioz azturik, besteenetan sartzen diranak, erriko gauza tokatzen etzatenetan, eta baita etxeetako ezkutukoetan ere, ematen dutela gaxotasuna baño erremedio gaiztoagoa; ta...

**I.** Ixo, Jose jauna! Badaki zeñak gatik aridan izketan?

**J.** Bai, Inazio, badakit ongi; eta ez dagoen bezela balego ere billakindea, ez nintzake ixilduko zeren fedezaiak persegitu ta gaztigatzen zuten fedea aitortu edo ezagutu nai etzuen, edo onen kontra itzegiten zuena; eta nik egiten det bakarrik beren diñadi eta goiendeari begiratzen ez ditzenak gatik. Oiek dira alportxaren ipuia bezela: «arrotzen faltak daramazkite aurreko zorroan, eta berenak atzekoan»; eta ezddakite (sic) beren etxera bidea baizik. Nik aditu diot bati, ezaguera faltaz eta bere onkarriak edo irabaziak itxuturik, sermoilekutik esaten: naiago zituela aitorkidatu ogei pekatu itxusi zituenak, amarrenak faltatu edo gutxitzen zuen bat baño, zergatik au zan andiena; eta apur bat eskasago ematen bazuen infernuko leize zulorik gaiztoanean sartuko zala, zergatik zan amabi pekatu eriozko baño andiagoa; eta amarrenak egiten etziran lekuan etzala egiten gari edo labore ta jakirik batere. Gezurra! Orduan sinistatzen zuten geienak, zeren etzekiten munduko eunetatik edo millatatik erribatek etzuela amarrenik ematen, eta emanere bear ezdala bakoitzak bere dinde baño



geiago; ta ez bakarrik nekazariak; naiz lan gutxiago eman, ezer pagatzen etzuenak baño. Gaur ordea, ez da ala: guztiok ikusten degu banaka ba tzuek baizik egiten ez dutela; ta orregatik ez dala pekatu amarrenak uka tzea; baño bai dagokiona, edo erriak autatu diona ez ematea, zergatik apaiz jaunak bearrak dira gure egiazko erlijio bakarra zaitzeko ta guztien fedeko gauzak erakusteko; ala beardute diña diran betuzte, begirune, lagundera, ta sari onirudiak.

**I.** Eldu gera gure etxera, Jose jauna, eta baldin badeitzo ondo utziko degu beste egun bat arte iskuntza au, eta bedorren naia bada nerea bezela sartu diteke bertan pizka bat belarra pikatu, pipa bete ta piztuaz asna-sa artutzerara; bada nik atsegin izango det.

**J.** Baita nik ere; ez premiaz eta nekatur nagualako, baizik zure andre ta aurrai diosala egitea gatik.

**I.** Ona non agertzen diran gure alderonz oitura duten araura, bada gorputz baten zatiak bezela ez gera arkitzen batak besteakin ez bada. Ekartzak musu bat, nere semea.

—Baita bi ere, aita, masalla bakoitzean bana.

**J.** Eta neretzat ez dek gordeko bat beraere?

—Bai jauna, nai dituen ainbat; beutzo ta banoa su eske beorrentzat eta aitarentzat.

—Arratsalde on, bada oraindik ez da gaua, nere aigerutxoa.

—Ongi etorriak dirala Jose jauna; unore ona dakar eta ori ondo, zeren eman naiduen aitzera ongi dala.

—Bai, Jainkoari eskerrak eta ez det damu.

—Ola, mutiko piskoarra (sic)! Seme ariña ta argia daukazute. Ea bada, orain uzten zaituztet, zergatik nereak ere itxedoten egongo zaizkit zeren guk ere elkar maite degu, eta banoa illundu baño leen; ondo bizi zaiteste.

**I. TA BERE EMAZTE TA SEMEAK.** Bear dan bezela; bijoa ondo eta gorantziak etxeko andre, seme alabai eta osasunarekin aurkitu ditzala.

## IV itzelkarra

**INAZIO.** Jaungoikoak egun on demala, Jose jauna.

**JOSE.** Bai zuri ere, Inazio; ongi etorria zerala.

**I.** Atsegin det onela ikustea; ta, etxekoandre, seme, alabak nola daude?

**J.** Osasunez eta zuen galdez zuek serbitzeko gelditu dira.

**I.** Esker milla; gu ere bada jaikitzen gera guziok, Jainkoari eskerrak ta naiginduzke serbitu. Au da notibua sartu erazi nauena emen, eta orain nua ikullura abereak ikustera. Au edertasuna dauka! Askok ta mardulak! Jainkoak beinka ditzala! **J.** Orrelaxe gustatzen zaizkit; gizon argia ta ondo azia bezela zabiliz. Eta, zure semearekin? Onela ikastendute obeto zer egin bear duten; ikusten duenak indar geiago du esaten danak baño.

**I.** Bai jauna; ori badakit, baño nere atsekabea da ezin erakutsia berorek bezela gauza premiazkoak, nola diran irakortzen eta eskribatzen, zeren neronek ere ez dakidan. Zazpi urtera dijoa ta ezer ez daki, ta gaur da aurreneko eguna mezara daramana. Erregutzen diot bada ez dedilla aserratu berorren itzalera arrimatzen naizelako, ez izanik igoalekoa; zeren geiago zaletu nau berorren jakinduriak, pintasunak eta erakusteko gogokak, nere lotzagabetasunak baño; batezere berorren ontasunak ta nereganako apizioak erakarri dit nere gurasoentzat aiña gogo edo geiago, eta barkabizat.

**J.** Ezta zeren; kontrara eskerrak ematen dizkitzut konfianza orrekin egiten didazun mesedea gatik, eta egingo det alegiña gusto andiarekin zure deseoa betetzeko, bada uste det premiazko gauza dala dakienak ez dakienari erakustea. Goazen bada Jainkoak eta Elizak agintzen duen bezela jaia gordetzera; au da, mutiko oiei erakutziaz zer egin bear duten meza osoa entzutera.

—Periko, prest aiz? Ea bada, gertutu ari ire kideko lagun Patxiko gana ta geldi geldi joanaz ikusiko diagu nola erakusten diokan zer dan Eliza, eta meza nola entzuten dan.

**PERIKO.** Zer dek bada Eliza, ta nola entzungo dek meza?

**PATXIKO.** Ara iristean ikusiko dek: etxe bat, gurea baño ederrago ta garbiagoa, eta entzungo diagu meza eserita, zuti edo belauniko apezari begira.

**PERIKO.** Egiaz orrela agertzen dek gure begietan eta ala dek gaur ikusiko deguna, Jainkoak nai badu; baño nere aitak dionez Eliza forma



tzen die, kristau fiel guztiak, nola gaituan i, ni, gure aitak eta beste gizon ta andre kristau geranak; batez ere apaizak, zeñetatik egiten diran bikario edo erretore, apez nagusi, ipiztiku, lenapezpiku ta kardenalak, zeñ guztien buru eta Jesukristoren bikarioa dek Erroman egoten dan aita Santua. Onek eta besteen arteko jakintzuak jarririk zeadek kristauak jakin ta egin bearditugun gauza guztiak agertzeko eta guk itxu itxuan, kunplitu bear zitiagu; baña guziez gañera Jaungoikoak, Moisesen medioz, erakutzi zigunak, zeñak itz gutxitan dituk: iñori ez gaitzik egin, au da, guretzat nai ez degunik, eta amatu gure gurasoak, zarrago edo andiagoak eta lagun guziak; baña mundu guziaz gañera Jaungoikoa. Ona itz gutxitan esanik zer egin bear diagun; eta onezaz gañera sinizten badituk kredoa dauden fedeko gauzak, ezer paltako etzaik. Meza enzuteko modua ere eztek ik esan dean bezela nai dedanean balauniko eta nai dedanean eserita edo zuti egon. Badakik aundiago ta zarragoai utzi beardiagula aurrerapena. Ongi bada; joango gaituk gure aitan atzetik eta nabarbendu gabe (bada leku guzietan ez diagu ibilli bear igual, baizik tokiari datorkion bezela), eta debozio andiak egingo diagu berak egiten dutena, urbeinkatua artzean, erreberenziatu, belaunikatu, zuti, eseri eta siñatzean eta beste gauza guztietan; eta ez bakarrik begiratu apaizari, baizik gauza megoperrai biotzez, ta santuen irudiai begiz, oroitzen gerala zeruan benaz daudenaz, erreza tzen diegutela, eta erregutu eta begirunetzen ditugula begirune andiarekin, eta aizkenik gogartatu gure Jesukristoren eranpe ta beste misterioen gañean.

**INAZIO.** Ederkiro mutilla! Au seme jakintzua dauka! Oni aditu diondanetik esagutzen det obeto apaizen premia eta oiek egiten duten serbizioa.

**JOSE.** Bai, gero itz egingo degu oiezaz, eta zuek asko dezute gaur dotriñarik. Patxikok irakortzen ikastea eta Erretore jaunak azaldutzean ikasiko du Perikok bezela. Orañ torizute zaria; txanpon onekin pelota bat erosi ta ari zaitzte guk bizarrak kendu edo meza eskila jo arte, baño gaur bakarrik, kaleko mutill eta dirugabe, eta beste igandean emango dizutet dirua berakiñ edo alkarrekiñ jokatzeko, bada gaur asko dituzute elizako orazioak eta galtzen duenak erreza ditzala meza ondoan erregutuaz premian dagoenarentzat eta guri emandeigun komeni zaiguna. Ea bada, aurrera zaitzte ariñ langa ta murkatzak igaroaz brinko batean edo eskuan gañean oñakin eta gorputzak in ikutu bage. Esan dizut, Inazio, apaizak gatik uzteko, zeren gaztean aurrean etzaizkit gustatzen izkuntza oiek. Orañ ez degu denborarik eta biurtzean jardungo degu. Ezta ondo ere gure semeak gere aldamenetik utzitzea, bañan ez gentzake beste gauzarik

egin, zeren dauzkagun milla lan egin bearrak. Orobat dek txarkiro kaletar gaizki azi edo asko jakinetara aldetzea, zergatik gauza okerrak ikasten dituzte; ordea bearda argitu begia baserrietan baño obeto; ez gaizki egiteko, baizik engañatzen utzi ez ditezen. Gañera naidet burruka ibilli ditezen eta ez olloak bezela igesi bildurrez eta guzien farregarri. Au da ona emakumentzat, baño ez gizakume trebentzat. Gaitzikgabea ta toleskabea txit onak dira, baña boboa ez da ezertarako. Azi ditzagun bada munduan bizi bearduten moduan; ordea Jainkoan bildurtasunean zeñ dan jakinduriaren aziera, eta prestuak; eta gizon ondratuak beren artetik botako ez dituzten gisan. Eta au logratzen da bezuzendearekin. Izan gaitezen bada saiatuak eta bear bezelakoak, ez arduragabeak; ikusi dizaigutela ez degula nai ta ez ere egin besterentzat, iñork guri egitera nai ez degunik, eta ibilkatu dezagun onesguna, zeren ez da goitarde aundiagorik premian dagoena erremediatzea baño.

**INAZIO.** Ordua jo du, Jose jauna, ta bagoazke elizara; mutillak ere zai daude atean.

**JOSE.** Eta ondo beroturik alaere. Asko izerditu zerate.

**MUTILLAK.** Eta berok ere arpegiak garbitu ta leundu dituzte; orain emango diegu musu bana ta jarraituko diegu elizara.

**JOSE.** Goazen bada; baña ez da gauza gaiztoagorik izerditan egotea baño aizetan edo leku otzetan, batezere sartzea elizan edo uretan.

Askoz okerrago da ur otsa eratea baño, zeren egarri danak nai du eran, goseak jan bezela. Bestetik nik nai det gizona oitu dedilla neketara ta atzekabetara.



## V itzelkarra

**PATXIKO.** Periko elizan gelditu da alik eta iru Aita gure errezatu arte, zeren galdu dituen beste ainbeste partidu. Emen dator.

**JOSE.** Patxikok garaitu au, nere semea? Bai Jauna, orretan ni baño geiago da; baita indarretan ere, baña ez jakinduriko gauzatan. Erreberenzia ere ezkerreko belaunarekin egin du. —Erakutzi egiok bada nola egiten dan eta beste faltarik aurkitu badiok, eta zoazte arintxo aurre-ra abereai jaten ematera, eta arratzaldean ere joango gaituk bezperatara, eta aurrera igande ta jaiero; eta ez bakarrik ikasiko dek, leiaka ariaz, pelotan eta makillan eta saltoan, eta indartuko dek gorputza; baizik baita ere arima, egiñaz erretoreak agintzen duena; eta ik ere, Patxiko, ez dek galduko ezerere; baña aurrena ikasi beardek irakortzen eta gero eskribatzen.

**MUTILLAK.** Agur bada, gero arten.

**INAZIO.** Au erretore jakintzu ta ona daukagu! Bere aora begira egon naiz begirik erabilli gabe sermoiak iraun duen artean. Santu baten antza dauka. Eta ez nuen sinistuko aditu ez banio neronek berorrek apaizak gaiztotzat zeuzkala.

**JOSE.** Engañatu zera, Inazio; nik ez det orrelako gauzarik aitatu ere. Nik ez det esaten apaizak eta pralleak eta beste elizako serbitzalleak gaiztoak dirala. Oiek ere gu bezela gizonak dira, Adanen semeak eta aren pekatuakin txertatuak, eta orregatik oien artean ere aurkitzen dira gaiztoak eta onak. Ezagutuko ezbazinduzket ezarriko nizuke ipui au: «Gure katuak bustana luze, nork bera bezela besteak uste». Batzuek beakurtutzen dituan ainbeste gorrotatutzen ditut besteak.

**INAZIO.** Ordea gure erretore jauna...!

**JOSE.** Gizona! Ni ez naiz ari onen eta apaiz guztiek gatik; nik eza gutzen ditut beren birtuteak eta miraritzen ditut, gizonak bezela eta apaizak bezela. «Obrak dira amore; ez itz onen kolore». Bear balitz izendatuko ninduzke franko emen eta leku guztietan elkargarri edo guziakikoari kalte andia egiten dienak. Zu gaztea ziñan eta etzinduzen esagutu nik bezela joan dan gudan, eta oraindik ez dira falta banaka batzuek.

**INAZIO.** «Ipurtxori edo enada batek ez omen du egiten uda».

**JOSE.** Egia da; baña gutxi oiek egiten dituzte kalte aundiak. Orduan oitu ziran Erregiñaren agintei ez obeitzen, eta «auntza beti basora»; orain ere iñoiz baño arroagoak daude ta etzate ajolarik; zirika ari dira desobe ditut edo aurkaratzeko. Onelakoak merezilukete salatzea, zeren ez duten

egiten Jesu Kristok agindu zuena «emateko Jaungoikoari Jaungoikoarena, eta Zesarri Zesarrena».

Nik deseatzen dedana apaiz jaunetatik, eta erregutzen diena nere biotzetik da beren diñadiari ondo gordetzeko ta beardan bezela errespetatuak izateko, ez ditezela sartu besteren lanetan eta alkate jaunakin, zefietan ere aurkitzen diran onak eta gaiztoak, elkarturik egin dezatela alegiña gazteak erlijioke ta zileikindeako bidean ipintzea. Arrotzak beti miraritu dira gure oituraz eta usarioaz; baña geldi geldi ari dira galtzen. Gaur leku eder eta maite onek du izena Euskal erria baña izkuntza mirarizko au ere badijoa eskutatzen. Anziñako denboretan dudarik gabe egiten zan Españiako inguru guztietan, eta gaur mugatu da Nafarroako ta Franziko mugetan dauden erri batzuetara ta Irurak bat deitzen zaien iru probinzi euskaldunetara, zefiak dira Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia. Baña gauza lotsa garria! Bertako semeak, onelako izen goxoak onkaitu ezdutenak, eta batzuek aitarena artu dutenak, ez dira jardun daukagun gauzarik ederrena gordetzen. Lenbizikotik utsi dute iges egiten; bada aurkitzen da erri bana-ka Bizkaiakoai ikutzen dieten batzuetan bakarrik. Aizkenekoatikan ere ari dira botatzen; allegatu da erdiraño, eta ez dute esagutzen erri andi eta buruko, au da, Bilbaoko semeak. Baña Jainkoari ezkerrek badirau ta iraungo du Gipuzkoa gure probinzi alaieko erri guztietan; ordea ez bere aitik deitzen diranak artarako egiten dituzten nekeak gatik, baizik bere seme gutxiagotzat dauzkaten leialtasunaren bitartez; au da: nekazariak gatik. Arrazoiarekin dagokio izen egokia Gu iz puzka. Zertarako daude bada Bergarako azitetxea eta lagunkida euskeratarron (gaur apaiz gaien eskola) Bitoriakoa? Euzkaldunak eta, naiz ez izkuntza au jakin, bertan jaio zerten semeak, esna zaitezte, eta Luis Luziano Bonaparte Franziko prinzi-peaganoz para zaitezte ta begira zaiozute ongi; eta ikusiko dezute dozana bat urte oietan gelditu bage ari dala euzkeraren edertasuna mundu guztiaren begietan agertzeko. Lotsa zaitezte edo aren antzera egizute zerbait euskararen alde bertako semeak. Oroitu zaitezte gizon aditu gure erritar batek orain 25 urte esan eta moldezko letran jarri zuenai «Euskerazko izkera gozoa gordetzen ez badezute, fueroak ere ezkutatuko edo galduko dira».



## VI itzelkarra

**INAZIO.** Gaur goizean paratu dit, Jose Jauna, nere begian aurrean gure euskerazko itzkuntzaren burubide miñgarria.

**JOSE.** Bai, Inazio, oroitzen naiz, eta ala da, eta onetan ere apaiz jaunak asko egin dezakete, ta erriak eta gure etorkiak oroipen au ere zor izango lioteke, eta ez txikiena alaere! Ea bada, jarraiozun goizean utsitako lanari. Gure asaba oroipen garrien usoak eta oitura onak berekin obietera eraman zituztenak ateratzen ez da errex, eta nekezagoa da oraindik aien lekuan paratutako doakabeak lurperatzen; alare batzuk bezteari bizkarrara emanik eta gere indar guztiakin egin bear degu alegiña nai deguna irizteko, bada «nai duenak geiago egiten du al duenak baño». Onetarako debekatu bear dira aurrena gaizki diran gauza guztiak, edo deitezkenak, pizkaka edo al dan moduan, zeren dan nekeza utzi eraiten gustoko gauzak, eta badira batzuek indarka debekatu ezin ditezkenak, eta orobat erautziak egiteko gogo geiago ematen dituztenak. Au da gure gaitzerako gizonari jatorriz datorkion etorkaia; baita ere dute berez aurrak eta gazteak geldu ezin egona. Batzuek joka, bultzaka, saltoka edo jokutzen egoteko gogoa dute, ta besteak abereak zirikatzeke ta zarrari farra edo arrabi erazitzekeoa. Gaitza dago bada ona egiteko bidea erakutsi ta autatu eragitean. Gauzarik onena da bada eskolan erakustera, batez ere irakortzen. Ni preztatzen naiz borondate sendoarekin onetan serbitzera; jarriko det bide laburra ta txit erresa; ez maisuak bear duten bezin zabala, baizik eskolara joan ez ditezkenak ikasi litezken aiña, ta oientzat bakarrik ipiñiko ditut ondoren irakurtza batzuek. Ordea ez da asko nere laguntza; bear dira euzkerazko liburuak. Probintziak badauka moldetegia eta bere ama Diputazioak erain laizke onak eta merke ta biraldu errietara alkatei edo bikarioai uste dituen ainbat kostatzen diranean, eta deitzot igaroko ez dala ardit batetik pliego bakoitza, ta guziak pozik erosiko dituztela; ta nola dan ohea ikastea gustoarekin, erraxa da autatzen bear dan gaia erlijio edo zilekindearen gañean, probintziaren edo erreinuaren kondaira, nobela deboto edo profano bertutezko irakasdea dauzkanak, eta abereak, soroak, zelaiak eta basoak nola ondo ta probetxu geiagorekin ateratzen diran. Leen esan dedan Prinzipeak egin ditu euskeraz makiña bat Ingalaterran, eta erraix eta merke ateralitezke moldetegian 500 milla kopi Probinziaren kostura.

**JOSE.** Bonaparte gandik gauza onik ez genzake itxegon, ta gutxiago Ingalaterran egiñik, non ekidatzen dira obetanduro burnizko ta galtzaiuzko (naiz gureak bekain onak ez izan) eta liñoazko gauzak; ordea donedeia purrukatzen dute.

**INAZIO.** Gauza ederrak dira ezin geiagoan; Joseren kondaira, Salomonen eta Aurren kantak, S. Markoren ebanjelioa eta Testamentu zarrean eta berrian daudenak; baitaere abere onaren doai egokiak, gure ta Bizkaiko eta Franziaiko izkuntzan. Euskaldunak eta batez ere Gipuzkoako erriak ez lukete billatuko adizkide maiteagorik Luis Luziano baño, ala bere lur ikusgarri ta naikaria gatik, nola bere jende lirain ta trebea gatik eta bere usuario ta oitura gatik; eta oraindik geiago bere izkuntza miragarrikoa gatik. Baña onela ez balitz ere, gauza onak artu bear ditugu naiz etsaien eskuetatik. Zure miña dator bere osaba Napoleon lenbizioa gandik; ordea arek ere, aginduzuen dozena urtean, odol asko ixuri bazuen ere, aurrera eragin zien ibilli zan erriai beste ainbeste lenagoko eunkideetan aiña. Gañera pagatuerazi zioten merezi zuen baño geiago.





## VII itzelkarra

**IGNAZIO.** Ola nere mutiltxoak! Debozios eta nik nai nuen bezela egontzerate elizan, eta uste diat zuek ere atsegiñez egon zeatela ta berriz etortzeko gogoa idukiko dezutela.

**BIAK.** Bai jauna, pozik etorriko gera gaur zortzi ere.

**JOSE.** Ori ondo; baña orain asko dezute meza ta bezpera aurreko pelota partiduaz, eta gaur zortzi geldituko zerate danboliñera dantzan edo begira egoten. Orañ zoazte aurrera ta gu joateako eman zaiozute jaten eta eraten abereai ta zoazte preztatzen irakortzen azteko Patxiko ta bere aita. Ala, Inazio, ez lotzatu, zeren ez zuaz iñori gaitzik egitera, ta au izango li tzake lotza ta pena, baizik pozkida zaite ta Jainkoari ezkerak eman zaiozu zure gutizia eta gauzarik bearrana eskuratzeraz zuazelako. Alkateak erautzi bear lukete elizako ekintzak bitartean bezela egoten iñor, ez tabernetan bakarrik, baizik kafetan eta truko maietan orazio eskila jotzean, eta aginte au egiten ez duten jabe guztiai paga eraziko nieke diru asko bear dunai emateko. Gogorra izango nintzeke! Etxe oietara ez dira joaten premiaz, baizik jokatu ta moskortzeagatik, eta oiek dira iturriak nondik datozen kalte ta atsekabe izugarriak. Nai aiña denpora dute egunaz tragu bat edo kafea artzeko, eta ez badute asko, eraman dezatela beren etxetara, zeñetarako utziko nieke ordu pare bat illundu ezkeroztik saltzen etxetarako eske dijoazenai; eta ala artuko lukete beren emazte ta aurren ondoan oberekin batean, eta ez oiek utzi goseak eta otzak argia erretzen ez ordu-raño, eta gizonak gaztatzen alferrik aiek premian daudela. Beren etxeetan lanik ez duten gizonak eta denbora ezin igaro, joan ditezke beste beren aide edo adiskidenetara edo. Gazteak ere joaten dira eta galgirotu geiegi, eta egunez ere obelukete oiek eta bai ere beren aitak joango balira pillotan, boletan, balenkan edo dantzan dabiltzan lekura, eta nai ta nai ez parte artu erazi nolabait gazte guztiai joztaketa batean edo beztean, eta beti aldan formalidadeekin juezak jartzen dituztela dudak erabakitzeke, naiz mutikoak izan; bada txikiak ere andian antzera nai izaten dute, eta orretan ez dago gaitzik. Onetarako egon bear lukete leku bertan eta sartu ere partiduetan apaiz, alkate eta zar ta erriko jaunak, eta oiek ikusirik egongo lirake gazte guztiai leku agirian gaitzik egin gabe, orain bezela; bada dozena bat urte baño lenago egoten dira bazterretan fumatzan eta beste gaitzakerietan. Eta oker oien eranzungarriak dira esan diran jaunak. Gogoan kontra ere an igaro bearlukete jai arratzaldea, eta ez zilegitu beste berpa

tzerik nolata irakurtzen edo eskribatzen edo beste gauzaren bat ikasteko ez dan. Zenbat negar da atsekabe itzuriko lituzkete sakrifizio txiki onekin bakarrik! Pelota partidu señalatu erbeztetarrak jokatzan dituztenak ere kalte aundiak eta eriotzaren bat ere erakartzen dituzte diru geiegi trebesatzen dalako, ta tasa jarri bearlitzake; geiena ontza bana urre jokalaria bakoitzentzat eta 20 erreal beste ikusleentzat. Nai aiña da baskari baterako, eta ala ezta izango notiborik tranpa egiteko edo suspitxatzeko, eta jakiten bada geiago egiten dala kendu eta eman beartuai. Onela izango lirake partidu ikusgarriak, eta bestela dira zezen jokua baño ikaragarrigokoak. Eta guzien gañetik zelatatuko nituzke nik karta jokulariak, eta kendu maiean billatzen dan dirua, ta jokulariak presondegira eraman.

**INAZIO.** Orduan bai izango giñakela doatsuak! Ala izan dedilla. Eta para ditezela lenagoko gisan dantza ta josta mota guztiak. Amen.

**JOSE.** Etxera eldu baño lenago adierazi bear dizkitzut beste gauza bi. Bata da: gazte guziak aldapa gora ez dabiltzenez, ala elizara edo kalera edo peztara joatean, nola etxeratzean, kantatu bear luketela, ez bakarrik, baitaere biñaka, irunaka edo lagun dijoatzen guziak zarrak eta gazteak. Onetarako autatu bear dituzte itz neurtu ederrenak eta eslejituenak; ala iritxiko dute, berriketa eta bear ezdiran itz lanak utzirik, unore ona beren artean eta alegerantza aditzen dieztenetan, miñez daudenai ta iñoriere kalterik egin bage, eta obena agertzea boz edo eztarri mirari garrien batzuek, zeñak musika ikasirik irabaziko luteke sari eta bizimodu ona. Nere ekaiak dira guztiak erabiltzea goaitu gabe beren mesedean eta iñori kalterik egin bage, eta iritxitu au bearrean arituaz aste egunetan, eta jaietan joztaketa bidezko ta agirikoetan. Beñere ez geldi: beti ibillian dantza, salto, pillota, balenka, bola, makilla ta joku gorputzak indartzen dituztenetan, edo premiazko gauzak ikasten eta iñolaere ez alferkerian eta galgiroan. Oituran dago bada aurrerako kemena eta alegiña saiatzea; bada gizakuma ta emakuma trebe ta saiatuak aterako dute bere bizimodua lanari neke iritzi gabe. Beste gauza da sekula jarduki, arazo eta boaldatan parterik ez dutela artu bear zeren irriskatzan dira nai gabe askotara eta ez ezer irabastera, baizik bizia galtzera, ziegatan, ezkutatua edo erbestean egotera, edo igesi edo ekadoietan ibiltzera. Berezki edo aldedaridetan sartzen diranetatik millak galtzen dute, ta batek bakarrik gizendu beste gizajo toleskabeen odolarekin. Eta onek agintea artzean zer egiten du? Astu ta farra lagundu ziote-naz, eta bera aberastu galanki ta begiratu ta lagundu bere aide ta adiskide ta losentxariak, eta bear bada bere etzai edo beraren kontra ibilli ziranai; batezere bearretez, oietan zerbait igarri edo bildur bada. Esagutzen det gizon alde guztietatik ondradu ta txit prestu bat munduan presturik bada,



aurrenekoan lekuan bere bizia bein baño geiagotan ari batetik zinzilik iruki duena. Kostituzio ta Erregiñaren alde artu zuen arma lenbizikoetatik eta 1820 ta 30 izan zan Mina, Manzanares eta Jauregiren laguna Franziaira joanik eta ango indarra sartu zanean Espanian 1823 alde egin zuen Koruñaraño. Orregatik aurreneko lekabildea utsi ta artu bear izan zuen beste bat, zeñekin arkitzen zan ongi, ta eman zioten beste ekintza bat, eta artu zuen lena utsirik. Asi ziran guda ondoren beste boalda batsuek; ordea berak bere lanak egin zituen piñ guzien gañetik. Gobernuak eskerrak eman eta esateraño besteak baño obeto bete zituela; eta ala ere, berak nai etzuela leku onetik bidaldu zuten txarragora. Bai eta serbitu zituen beti salginde bage bere etsaiak ere; baña batez ere bere adizkide ta lagunak, etxean arturik eta erbestera lagundurik. Aizkenean, gizon oso ta doatsu au bizitu bazan ere errietako guztiak maitatu ta miraritzen zutela, bere ondamuz letradu bat etzan aspertu gezurrez aurrena papere-tan, ta gero Madrida joanik, bota ta bere lekuan jarri arte, orain dala 8 urte. Kale gorrian paratu zituen bada zenar emaste ta 8 seme alabak, eta egon dira 6 purgatorioan baño ansiya geiago igarotzen, alik eta oiek ondo aziak eta obeto ikasiak, guziak arritzeraño, irabasten asi arte, aldunak lagundu gabe Jainkoak baizik, zeñek estutzen du baño ez ito. Igesi joan zan bat eta bere semeakin gizon on aren etxean igaro 20 egun, onen beso, mai ta oian, gaur ministro da; eta leen bere edo semeen eskuz eskribitzen eta agindu bazion ere birritan bere laguntza ezdu nai izandu orain iritxi ez jarduera eta ez kitorrarik; eztaere bi letra egin. Orregatik beragatik alako gizonai itxi zaiozkatzute zuen belarriak eta ateak eta begi itxuan obeitu Gobernuari; batezere Irurak-bateko erriak eta semeak.

## VIII itzelkarra

**INAZIO.** Mutillak emen daude prest, eta nerea txit larri zer ikusiko ote duen, ni bezela.

**JOSE.** Ezerez adi, jakiñ edo egin ez litekenik; guzia da errexa, ikusiko dezun bezela. Ola, Matxalen! arratzalde on; etxe aldetik, andre onrada eta bear dan bezela. Bizkor zabiltz?

—Bai Jauna, osasunarekin berori serbitzeko. Norbaitek egon bear, bada iñor gabe ez deitzot ongi uztea.

—Ez da bear ere; emakume zinzoak etxea gutxitan laga bear dute. Joan zaitte bada zere lanetara, ta ni ekitera nua eskola erakusten zure senarrari ta semeari.

—Bai, buru ona dute! Batak baño besteak gogorragoa; goait eraingo diote.

**INAZIO.** Ala da; arrazoi dauke nere emastek; uste det nekatuko dala ezer aurreratu bage, eta alferrik igarako duela ezan duen denbora ta gei-ago.

**JOSE.** Ez, badakit zer egitera nuan; eta egiaz esaten dizut eze ez bakarrik irakorten eta eskribitzen; baita ere ikasiko dituzute itzekinda, luzizaldea, lurlantzea, izarjakindea eta neurtakinda.

**INAZIO.** Barka bizat gaizki esaten badet; bada uste det edo guzaz farre egin nai duela, edo txoratu eginzaiola. Eta zer da itzekinda?

**JOSE.** Ez bata ta ez bestea; eta zuk esan dezun itzak du izena erdaraz Gramatika.

Aita semeak. Aaaaah! jajajaaa! Kalamatrika! Leen esan deana! Farregalea ematen dit! Ez bedi aserratu. Eta besteak zer izen dute?

**JOSE.** Lectura, caligrafia, geografia, agricultura, astronomía ta geometria.

**AITA SEMEAK.** Jajajaja! aaaaah! Au kalamatrika!

—Zer deitzok Patxiko? Nork artzeitu oiek buruan? Erderaz bekin nekezak dituk euzkeraz. Oiek erderamordolluak! Beorrek egingo duela farre ta gu aigeraka.

**JOSE.** Ez dira bada aienak ere; Gaztelauak konpondu zituzten latinezko ta griegozko itzak. Zuk badakizkitzu bada beste itz onen okerrak.

**INAZIO.** Beste burla bat! Nik ez jauna; ez det sekula ikasi dotriña kristiana piska bat baizik, nola diran: Pater nosterra, Ai Marie, Santa Marie, Kredoa, Salbea, Mandamentuk, Artikuluk, Pater nosterraren peti-



ziok, Enkarnazioko misterioa ta beste orazio batzuk erakutsi diraden araura.

**JOSE.** Banekien zuk gauza nekezaguak ikasi zinduzena, bada esan dituzuen itz guztiak ez euzkarazkoak dira, ta ez da gastelanizkoak ere, bai-zik latiñezkoak. Eta: Gloria badakizu?

**INAZIO.** Orren astotzat nauke? Ez orrenbesteraño! ez asko ta ez gutxi. Ori ta zenbat Jaungoiko diren ikasten dute aurrak lenbiziko. Glorie Frati, Pilio, Ispiritu Santo. Sekulaeratan printzipion ez nuken senpren sekulako sekulariokoetan. Amen.

**JOSE.** Oiek bai dirala asto keriak eta erderak edo latin mordollu edo gauza zikiñagoak! Baldin bazekizkizu nolakoak diran etzinduzke berriz esango; ezta ere beste iñork ni erretorea edo apaiza banintz. Zergatik euskeraz esaten ez dezu? Itz bat ere ez dezu ondo esan.

**INAZIO.** Egia da? Euskeraz ez dakit, zeren txikitandik etxean eta elizan beti ala aditu ta esan det.

**JOSE.** Aserraturik erantzun ez dirazu badakizula? Asko da bada berriketarik, eta lastoa utzita goazen alera, au da, irakortzera.

Ikasi ditzagun letra oiek.

A, E, I, (Y), O, U: (H).

a, e, i, (i), o, u: (h).

Ederkiro! Biok ikasi dituzute batean ta laister, eta ez dezute galdu ez batak eta ez besteak, baizik biok irabazi. Bada aiek bezela esaten dira oiek ere.

Ha, he, hi, ho, hu; edo Ah, eh, ih, oh uh.

Eta berakin bakarrik ona emen zenbat itz eta bitzera:

i, au, ao, eo, ei, io, ia, ie, oa, oe, oi, ua,  
aoa=aua, eoa, eia eie, ioa, oea, oia, iyo, aiei, oiei, hi, iha,  
ihe, iho, ihoa, aho, ahoa, ahu, ahua, eho, ehoe, ehi, ehia,  
ehie, ohea. Oa, oe, ohio. Oa, i oa.

—Eh? au aoa? —Uh! —Au oia? —Oh! —I  
oiei: ei aiei. —Ah! —Ih!.

Orra ikasi irakortzen, eta gañera ziboldea! Baña oraindik ez; lautatik bat bakarrik, au da, sei izkira, ta beste oien irak erakutsiko dizutet lau

igandetan, eta nai badituzute beste sei, oraindik denpora dagoen eskeru, ekiogun berriz, eta uste det jarraituko dugula ere leenakin eta letra oiekin markatzen diran itz eta bitzera batzuei; eta besteak zer esan nai duten badakizute?

**INAZIO.** Bai Jauna. Aizkeneko iru itzak bakarrik ez dakizkigu; eta beorri obra gaiztorik egiten ez bazaio edo nekatzen ez bada, nik leen baño gogo geigo dauket, zeren ez nuen uste onen errax izango zala.

**PATXIKO.** Athe, niri ere lazki gustatzen zait, eta afaldu gabe ariko nintzake gau guztian.

**JOSE.** Ia bada: Ia deitzen zaio Probintzi onetako eskribau bati ta bere gurasoai, eta Eo ta Ohio ibai biren izenak dira.

B=V, C=Z, Ch, D.

b=v, c=z, ch, d.

be=ve(u), ce=ze(ta zeda), che, de.

Bi, be, bai, obe, aba; baba, biba; ze, zu; da, do, du, duda, edo, uda, adio, odeia, idia, deia, doia, doaia; bea, baia, beia, abea, ibaia; azia, ezi, ezezea, aza, izu, zozoa, aize, izaia; etxe, itxi, itxu, txea, txitxia, etxetxo; Badezu, aiz izena. Eba bizi bada zoaz. Abea ezea dezu. Bi otxabatxo diozu? Etxe bea ez da; eia itxi beza; idia edo beia da? Zozo izua bizi da? Bizi bedi bada. Adi ezazu; ia eo dezu? Itxozazu; odeia edo aizea da ohea? Bide au, zubia edo eliza da ohea? Ibaia doi doi doa. Adio; Biba! Biba bada! Ona non oiek ere ikasi; pauso onetan ariñ iritxiko degu guk ainbeste nai genduen. Orañ egingo det nik farre ta algara zuen itxuzpena gatik ez sinistu nairik nik nuenaz esaten nizuena. Fede geiago gabe badezu Jaungoikoaren arpegia ikusiko. Orain beste jai arte; gaur aiña ikasten badegu nik uste baño lenago bukatuko degu.



## IX itzelkarra

**INAZIO.** Jaungoikok eta bere Ama brijñiek (sic) osasuna diotela Jose Jauna; baita ere bere gerazi komeni zaiona mundu onetan, eta zerun artu dezela bere ondoren. Atseindet orren bizkor aurkitzea; eta familie nola dauka? Eta abere guzik ere okerrik gabe?

**JOSE.** Zoro bat dirudizu arimarik ere salbatu gabe. Eseri zaite zure semearekin eta esairazu etxean nola utzi dituzun, bada zuk aitatu dituzun guztiok ondo gera Jaunari eskerrak. Eta nola orren alegere? Esan liteke aguardiente pizkaren bat eran dezula. Neurriarekin edo neurrigabe izan da?

**INAZIO.** Ez modu batera ta ez beztera; katillu zabala bete esne arto sopakin. Nere andre eskumuñak emanaz beorrenzat esandit beorrek bezela, sarritan alare, zoratu zatala, zeren ume bat bezela (eta nik erantzuten nion apaiz bat bezela) ari nintzala irakortzen. Ala da izan ere; guzia ikasi det aimarie bezelaxe eta badeitzot iritxiko dituala gaur ematen diran guztik, bada gogo izugarrie jarri zait.

**JOSE.** Goazen bada bertatik.

F, M, RR, R, S.

f, m, rr, r, s.

Fe(efe), me(eme), rre(erre), re(ere), se(ese).

Famea, feria; mama, momoa, marea, mea, moroa, mirua, morroa, murrua, morroia, rasoia, errosea, Rosa; erre, erroa, errua, arra, arria, arri-ma, erramua, aria, ura, urra, urrea, arria, era, erraia, afaria, moroa; sarea, sarri, sasia, sei, seme, sisa, soroa, sua, suaia, usaia, usoa, sasoi, sarrera, amari, amorio, amorraia, ase, asi, ausi, erosi, eraso, erausi. Maria, euria ari da. Orramaiari isuri zaio? —Ez. —Eramaizu; iruria ere bai. Au ur arreal! Ifar aizea asi da. Zer da frase eder ura «ori ori ori?» —Asmaria- Zer sermoi edo abade zar amoriosua! —Sofia, zer aur edo ume itxusia! Farrez edo aserre; armiarma edo ar ari urre ura?

Ederkiro; guazen aurrera.

L, LL, N, Ñ, P, X.

l, ll, n, ñ, p, x.

le(ele), lle(elle), ne(ene), ñe(eñe), pe, xe(ekis)se.

Ana, ala, oiea, oloa, olio, eulia, eulea, laia, loia, leioa, illa, illea, olloa, leioa, lana, lañoa, lapa, lupia, lepoa, Olano, oiala, illoia, anaia, añoa, apaña, ixo, auxe, pixa, ipiñi, epela, pala, liñaia, naia, nanao, niñaia, ona, oña, piñua,

pilloa, pipa, pipola, polaña, puñala. Blas, eun eper il da piper salsan ipiñi. —Ez lumer epelduan obe da. Fletxa, mueble bearra du. Brasila eraman bear al du? —Sofia, zein zan himno solemnean ibilli dan frailea? Zer boza duen! Plazan zebillena bronzean pluma berdeaz? Nere osaba; simplea.

Beajun deizuela nere maiteak! Auxe da burnizko bidetan ibiltzea! Eta egiaz ala da, zeren nik garatu zaituena (sic) aini zabala ta labaiña da non baporea ez da premiazkoa eldutzeko lenago nai degun lekura. Itxomazute orain mezatarra eta arratzaldean bukatuko degu.

**JOSE.** Ona bada arratzaldea; gakitzen.

G, J, C=Q=K, T.

g=j, c=q=k, t.

ge=jo(ta), ca(ce), que(qu)=ka, te.

Je, jo, joa, eje, iji, jaki, jeiki, ijitoa, joku, jokatu, kako, kukua, kakaoa, kaikua, kokotea, uko, kaja, kajoia, kea, takoa, tokia; takoaia, ukatu, ukitu, kisketa, troka, titia, eta, ito, ata, otea, oitu, kito, titara, trikua, flautea, trotea, treta, frutua, prijitu, tratatu, trukatu, ikatza, kokotza, jetzi, trabajatu, tristetu, trinketea, Etna, etniko, Atlantes, Atlantiko, Witiza, Walia, Liwa.

Ga, ag, gla, gra. Ka=ca, ac, cla, cra.

gue, eg, gle, gre. ke=que, ec, cle, cre.

gui, ig, gli, gri. ki=qui, ic, cli, cri.

go, eg, glo, gro. ko= co, oc, clo, cro.

gu, ug, glu, gru. ku= cu, uc, clu, cru.

Gu, gogoa, aga, ago, igo, ego, egoa, Goia, gaia, degu, bego, egia, ogi, geiago, geiegi, tegi, bage, ogei, berrogei, igui, Etxague, zigueña, eguerri, eguerdi, eguena, deguena, geigo, gaziago, gitxiago; Jose, jaso, josi, gajoa, juango, juzgatu, jeringa, gigante, Jaungoikoa, jaieguna, itokiñak, zizak, jakingo, tabakotegia, zikinkeria, koskoa, kazoia, zekena, zezena, zekorria, gazeta, igasagarra, agasajoa, akatza, katetzaldea, zikinkiro, klaberina. Elaskala, brinko, brokela, klera, klima, kredoa, kriselua, kristala, grana, grilluak, drogeria, Wiseriko, Wilfredo, Maximo, Maximino, Maximiliano. Joakin egon dek zitzak jotako zamarra bat bizkarrean eta ganibeta ezkue-tan itz bat esan bage; jan dik eta jua dek gogoak ematen dion tokira zoro baten gisa. Beatriz, joakit Jesukristo zeruetako Jaungoikoaren seme guru-tzean iltzez josi zutenari otoiñera Enrikeren osasunegatik.

Ona igandea gustora ta protxuz eta iñoren kalte gabe igaro. Zoazte ongi gaur zortzi arte. Torizute bi ipui erderatik biurtuak jarri dituanak itz neur-tuetan euskaraz irakortzen eta nai badezute buruz ikasita etorriko zerate orduan.



Ona bi ipuitxo berrituendako eta asto ez jakiñentzat, eta zuek ber-  
soetan ere irakortzen oitzeko.

### I.

Igel erauslebateg  
Bere putzutikan  
Aditu omen zuen  
Olo bat kakarean.

Eta esan omen zion:  
—«Sinistuko ez nuan  
Ziñala zu, nere aizpa,  
Aserre maiean.

Eta orrenbeste otsekin  
Zer berri zenduela?».  
—«Bakarrik esateko  
Arrautza para nuela».

—«Arrautza bat bakarrik  
Eta ainbeste bulla?».  
—«Orixe ta ez besterik  
Nere maite igela».

Eta ni arritzen ez da  
Zu ikaratzen zera  
Ixildu gabe kraz kraz  
Goizetik gauera?

Zerbait egin dedala  
Eman det aitzera.  
Ta zuk balio ez dezu ta  
Zuaz ixiltzera.

### II.

Onako ipuitxo au,  
Naiz ongi irten ez,  
Asmatu det orain  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez

Zelai nere erriko  
Bere aldamez  
Zoan igaro asto bat  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez

Pito bat beretan  
Aztua artzaiez  
Arkitu omen zuen  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez

Gertura zitzaion  
Aizea emanez  
Purruztararekin  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez

Sarturik pitoan  
Bada bere aizez  
Txistu eragin zion  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez

Oh! esan zuen astoak:  
Au ondo jo dekan!  
Gero ez dakitela  
Astoak musikan!

Dira bada astoak  
Ikasi gabez  
Bein bat dakitenak  
Zer uste bagez.  
Kasualidadez



## X itzelkarra

**JOSE.** Ikusi dezute zein errax ta zein laister ikasi dezuten irakortzen, eta au da gauzarik bearrena, zeren beste guztiak nola dauden liburuetan (erderazko eta beste erreinuetako izkuntzan, bada euskeraz ez dago oraindik) neke gutxirekin ikasi litezke. Artarako bear da irakorri sarritan eta denpora luzean, agudo ta sentzuarekin egiñ eta ondo endeglatutzeko. Eskribatzen oraindik errexago ikasten da. Aurrena bada tiratzen da arraia bat goiti bera eskerrerontz, onela: I; eta azkenean gantxo bat, ara: eta gañean puntu bat paratu ezkerro, ona: i, badaukagu letra eta itz bat; gero puzka bat aritzen da igoalekoak egiten eskua arinduaz ikasten. Ondoren egiten da leena bera baño erabes, gantxoa lenbiziko goitik jartzen zaiola: arabada: eta beste puzka bat aritzen da onelakoak egiten, pluma altxatu gabe errengoloi batean aurrenekoak, eta bestean aizkenekoak; modu onetan: mm, puntu bage: mmm. Oiek biakin moldatuzten dira bada letra txiki guztiak, gisa onetan: i birekin u; pizkabat luzatu ta gurutzatuta t: kako biribilla eskuiko aldetik erantzi ta papur bat geixeago begi bat bezela ze, eta bostakin ibilkairatzeko itz oiek:

titi, kuku, ezi, eize.

Orain, oni ezartzen bazaio beraren erdia, r; zeñi i bat, n eta gañean tilde batekin onela, ñ; ari eskuitik daukan gantxoa utzi ta bera bezelakoa, au da, aurretik aurrenekoa jarriko balitzaio bezela, m; aurreneko gantxoari bakarrik, ezartzen bazaio i baten beeko erdia eta beste i bat, a; onen lenbiziko puzkari pluma altxa bage bera eraman eta gero gora, onela: v, ifinten bazaio tildea, v: goian eta bean jetxi az eskuiko alderontz, eta igoal gurutzatuaz beste bat beti gora, onela, x; goian tildea ta arraia eskerrerontz beera ta beste tilde bat, z; goitik beerontz eskerrera pizka bat eta baz bukatu, o; eta s aizkeneko au bezela asi eta bere eskuiko erdia ezarrita.

Ikasi ditugu bada oiek leenaz gañera: r n m a v x z o s: zeñakin antolatzen dira ibilkairatzeko, nai aña itz: ama, onara, zaña, baso, urruxa. Oiekin eta beste aurrena ikasi ta ondoren jarraituko diran letra guztiakin okindatu bear da pluma altxa gabe batekin besteari itxekitzea beretan agiri dan bezela, eta izendatu diran guztiakin egin besteakin asi baño leenago ondoren paratzen dedan itzerosa bezelako batzuek, bada ala papera gutxiago gastatzen da, eta gero errenkada bat oiekin eta beste bat bestea-kin:

nere ama maitatua: nik ez nuen uste onen errax ikasten zanik irakortzen; eta ez au ere; ara emen ezikusta; onen bizia da maisu au!

Ekiyogun bada orain besteai: i beste ainbeste luzatuta l; oni tildea ezarri eskero, v eta oren gisa, b; iri eskuiko aldetik egiten bazaio uren an tzera beera beste ainbeste luzatuaz begi bat y; puzka au papur bat goiti luzaturik j, eta au gora ere l aña luzatuta gurutzatu t bezela, f. Nai bada l,b eta f egin litezke onela begiakin, oi dan araura. Azkenik n bezela egiten dira h eta p, lenbiziko anka luzaturik, l eta j aña, nai duenak begiakin ara: h, p; eta arekin orobat d(d), g, q, eskuikoa luzatuaz ikusten dan modura. Ona bada letra txiki, minuskulak esaten diran guztiak bukatuak; eta orain egingo ditut berriz, aurrena leen antolatu dituan bezela i eta r (etorkai onegatik deitzen zate sustraiak) bakarrakin iuteellbbyjfrñmhhppa (au ere deitzen dute sustraia, zergatik berarekin moldatzen diran iru oiek d g q) vxzzos; eta irakortzeko, eta eskribitzeko bakarrik paratzen diranean eta beti arkitzen diran a, b, c, ch, d, e, f, g, h, i, j, l, ll, m, n, ñ, o, p, q, r, rr, s, t, u, v, x, y, z. Beste bat falta da gure erreinuaz kanpora egiten dana ta euskaraz ere usatzen dana, c eta q baño arrazoi geiagorekin; eta da k, zein moldatzen dan h bezelaxe koska bat eskuikoari beeratzean egiñaz ezkerreko aldetik, eta bere lekua da j eta l-ren bitartean. Zer deitzozu, Inazio, nekezak dira ikasteko irakortzea ta iskribatzea? Obeago izango da onetan baño igaro denbora alferkerian eta tabernan?

**INAZIO.** Gizonak eta alare! Badaki ames bat iruditzen zatala? Ikusten deana ezin sinistu det, eta au bera usteko dute beste nik bezela aitzen zutenak; bestela pozik ekingo lioke gauza premiazko oni. Alabaiñere lenago urteetan egoten ziran, eta etzuten ezer ikasten; baña nik banatuko det orain milagro au. Badaki zer errezelatuko. Beorrek etsaiekin parte gaiztoa duela edo aztikeria edo jaiño txikiak daukela.

**JOSE.** Joan zaite oiekin Barrabasen etxera alakorik sinisten badezu. Zuk ere sorginkerietan? Asi gaitezen letra andiak, ordea txikiakin baño azkarrago. Paper arraiatua banu obeto aitzera emango nizuke, baño zuk eta eskaldun geienak argiak zerate eta gabe ere ondo ikusi ta ikasiko dezue. Alaere ez da izango geiegi iru garabato txiki, zeñakin antolatzen diran letra guztiak, baita ere zenbatak eta andien sustraiak egitea punto arraiak iruditzen dituzten bitartean ezartzea: Ara nola:

Agiri dira bada arraia oiek moldatzen dituztela gurutze batzuek eta beste izendatu diran garabatoak dira 1. S nausia ta 2. y 3. biribillak, bata goikoa ta bestea bekoa, ta irurak egiten dira gurutzetan edo beren erdi



erditan asi, sartu ta bukatzen dirala. Beste iru letrak dira sustraiak, beste irurakin antolatuak ezerere kendu ta ezarri gabe, berakin erraz edo txertatuak balira bezela ta seiak dakate (a) asieran nondik egiten dan jakiteko. Lenbiziko sustraietik irtetzen dira bada; zein dan I, J F H K: oiek biak dakate gañera bigarren sustraia pizka bat geiago edo gutxiago, ordea lenbizikoa oso; ondoren dijoatzenak ere badute zerbait onetatik: U V X Y Z. Guziai egiten zate aurrena garrapato goikoa, oiei nai bada aiei baño txikiago eta ondorengoai pizka bat aiei baño ere andiago; naiz berdinduarekin ez da ezer galtzen, eta aurrena egiten zaieste garrapato nausia P B R Q D O J. Bigarren sustraiakin zerbait kendu edo erantzi edo txikiago, C, G S L E. Eta irugarrenarekin, A, N, M.

B-ren zatiakin 1 9 3 5. D-renarekin 4, 7, Z bezela eta 6, 2 8 9, oien eta Q eta besteen antzera, zerbait kendu edo ezarriaz; ?, berriz da o bat.

Orra bukatu eskribitzen ere.

**INAZIO.** Mesede au ezin pagatuko diot diruakin eta beste gauzarekin. Esker milla ematen diozkat eta etzait astuko biziogeran egunetan, zeñak opa diozkadan txit asko eta pozez beterik.

## Eguraldia=(denbora)

—(Zer denbora dago?)

—Eguraldi bat gozotsua, txit ederra=(ederra txit) egiten du.=(Txit denbora ederra dago=Denbora ederra dago txit=Denbora txit ederra dago:...gozoa.)

—Egun bat ederra irukiko degu=(Gaur denbora ona izango degu=daukagu).

—Alaere gauaz euria arizan.=(Bart euria ari zalarik)=egin duela-rik).=Orregatik bart euria egin du.

—Aizeak ganbiatu du=(Aizea mudatu=biurtu du).

—Eguraldiak euria eskeintzen (amenazaten) du; ekaitza (tenpesta-dea).=(Denborak euri antza

dauka=senblante=(arpegi)txarra=(gaiztoa)dauka.

—Zerua estaltzen da; lañoatzen da.=(Odeatzen ari da).

—Ur tantoak=euri tantoak erortzen (ari) dira.

—Euri erazo=(jasa)txit andia ari da.

—Turmoia aditzen dezu?

—Jesus! Zer ekaitza!=(au tenpestadea!=au denbora!).

—Gau guztian aritu dira tximiztak=(ez dira gelditu tximiztak).

—Etzin nintzanean=(oiratzean)astean zan turmoitzen=(turmoiak egiten)=(astean ziran turmoiak).

—Oñazkar bat erori da.

—Kaskarabarra=txingorra ari da.=Kaskarabarrari=txingorrari erazo dio.

—Astean da euria gutxitzen=(atertzen ari da)=Euria gelditzen ari da. Eguraldia argitzen da=(ari da).

—Lañoak desegintzen=gitxitzen=ezkutatzen=joaten asi dira=badijoatz=(Odeia garbitzen ari da).

—Begira zer ustargi(en Segura dizen Erromako zubia)ederra!

—Eguraldia=(denbora)biurtzen da; edertu=(ondu=argitu)du.

—Eguzkiak kiskaltzen du.

—Bero bat egiten du ezin agoanta-garria=(sufritu/garria) lezake-na=(geiegia)=(Ezin sufritu(iraun)lezaken beroa dago).

—Izerditan, uretan bustia bezela=(ur egiña)nago.

—Autz asko=(andia)dago.

—Goizean(gaur goizean intza zegoen)kanpuan intza zegoan.



- Aizea egiten du=(aizea dabill).
- Aize oztxoa=preskoa dago.
- Aizea erori da=(gutxitu da).
- Txit otz andia dago.=Otz aundia dago txit.
- Otz leorra egiten du=(dago).
- Izotza egiten du (=ari da).
- Otzikarak nago.
- Termometrua jaizten da.
- Ibaia ormatu du. Patiñak dabiltz bertan.
- Ormak ez du oraindik irauten=(Orma ez dago bear aña sendo oraindik).
- Izotza ari da; oingiroa=(lurra)ormatua dago.
- Elurra ari da.
- Elurra ari da al dan guzian(ezin geiagoan), txit malo.
- Gaur goizean egin duen elurrak bigundu (=gozatu) du asko eguraldia.
- Izotza desegiten (kentzen) ari da.
- Elurra urtutzen ari da.
- Loi asko dago.
- Eguraldi buzti ta galgarria dago.
- Illun dago.
- Illargia dago.
- Egun sentia da; argitu du.

## Edadea (adina)

- Zer (edade) adina dezu? (Zer=Zenbat denbora daukazu?) (Zenbat urte dituzu=dauzkatzu?).
- (Amabi urte ta erdi, o amabi ta erdi) solo; o amabi urte ta erdi ditut=amabi ta erdi dauzkat.
- Amabost urte beteak dauzkat.
- Orain bukatu ditut ogei urte.
- Ill onen azkenean beteko ditut ogei ta bost urte.
- Orain zortzi egun (=gaur zortzi) bete zituen nere anaiak ogei ta amaika urte.
- Zenbat urte ditu zure arrebak?
- Berrogei urte luzeak dauzka. (Berrogei igaroak).
- Ez dirudi ainbeste urtekoa. (Ez dirudi ain=orren zarra).
- Dirudien baño urte geiago ditu (=zarrago da).
- Emezortzi urteko alaba bat dauka. (Badu emezortzi urteko alaba bat).
- Orain dago bere sazoian.
- Zenbat urte ematen diozu nere aitari?
- Onezkero igaroa izan bear du berrogei ta amarretik.
- Kabal. (Alaxe da). Orain dauzka berrogei ta amabost.
- Jaoeratik (berez) txit sendoa da; ongi aurkitzen da.
- Zeñ urtekoa da zure semea?
- Milla ta zortzireun ta lau garrengo abenduko illekoa.





## Erregutzeko: suplikatzeko

- Mesede bat egin nai didazu? (gingo didazu?)
- (Grazi bat egingo ziñake?) Doai bat itxedon dezaket?
- Mesede bat eskatu dezaket?
- Iduki nai dezu=(idukiko zenduke) ontasuna...? Izango ziñake ain ona...?
- Egingo ziñakezu, nai bazenduke serbizio paregabe (siñalatu) bat.
- Ezin eman ziñakezuke (ez lirazuke emango) satisfazio andiagorik.
- Nai dezu permititu...?
- Atrebituko naiz erregutzera...? Otoitzera (suplikatzera)...?
- Etzaitz izan gorra nere erreguetara.
- Zure uko batek atsekabetuko ninduke askotxo.
- Iduki ezazu ni gatik ontasun ori.
- Nik erregutzen dizut.
- Suplikatzen dizut arren.
- Badakit zure ontasunak kaburik ez duela.
- Au da bakarrik eskatzen dizudan faborea.
- Biotzetik damu det onela zu iguintzea.
- Erregutzen dizut barka dizazula arren onela mikaistea.
- Jaungoikoak beteko zaitu moruz bere faborez.
- Ori itxedon det zure adiskidetasunetik, (ori espero det).
- Kontatzen det zurekin, egia da?
- Eskerrak emango dizut. —(Agradezituko dizut.)
- Nere bizi guztian eskerrak ematen egongo naiz.
- Nere agradezimentua izango da sekulakoa.

## Eskeintzeko

- Utzi egirazu eskeñi deizazudan.
- Zer gustoko gauzarik eskeñi dezakizut?
- Egidazu mesede artzeaz ezerezkeri au=(friolera au).
- Arzazu niri gusto ematea gatik.
- Izan zaitz diña onirizteaz nere eskertasuneko señaile txiki oni.
- Arren ar ezazu omenaje au.
- Artu ezazu nere botoen eskeintza.
- Ez daukat ezer zure agintera ez daukedanik, (zurea ez danik).
- Nik daukedan pizka zure dispoziziora dago.
- Borondate onez ezkeintzen dizut.



## Ukatzeko

- Ez dezaket.
- Orixe ez dago nigan.
- Ori niri ez dagokit.
- Damu det, baña ezin liteke, (ez da posible).
- Zuk eskatzen dezuna ez dezaket egin.
- Txit asko damu det zuk eskatzen dezuna ukatzeaz.
- Jakiñean egon zaite nere kulpa ez dala.
- Orain ez dezaket.
- Sasoi au ez da faborablea.
- Barka ezazu, nere adiskidea.
- Espero (Uste) det barkatuko didazula.
- Beste baterako (batean) izango da.
- Biotzetik damu det; sinistu ezazu.

## Naikidatzeko: emateko

- Nai det; gogo aundiz; borondatez.
- Amorio onez; biotzez eta biziz.
- Kontentuz; gustoz.
- Zure agintera nago.
- Zuk nai dezun bezela.
- Konta ezazu; zaude deskansuz.
- Aginduzu eta obeitua izango zera.
- Guztia naiz zurea; zur<e> agintetara nago.
- Gogoz egingo det.
- Txit asko zebratzen det onelako era izateaz zuri laguntzeko.
- Asko zebratzen det enplea nazazun frankezaz nai dezunean.
- Ezin ukatuko dizut ezerere.
- Nere gogoari aurrera artu diozu.
- Gauza andiago bat egin nai nuke zu gatik.
- Iñor gatik egingo ez nukena egingo det zu gatik.



## Eskerrak emateko

- Eskerrik asko.
  - Eskerrak ematen dizkitzut=(agradezitzen dizut)=Esker dizut.
  - Txit eskergai=(agradezitua) nagokizu.
  - Eskerrik asko txit.
  - Millatan milla=(miloi bat) esker ematen dizkitzut.
  - Eskerrak ematen dizkitzut.
  - Eskergai=(agradezi)tzen det asko ontasun ori.
  - Txit eskergai=(agradezitua) nagokizu=Eskerrik asko dizut txit.
  - Ez dakit nola eranzun orrenbeste (atenziori) begiruneri.
  - Txit ona zera; ori ontasun aundia da.
  - Asko faborezitzen nazu; geiegi. =Mesede asko egiten didazu;
- geiegi.
- Mesedez betetzen nazu moruz.=(Mesedez kolmatzen nazu.)
  - Nola pagatu al dezakizut zor zaitudana?=(Nola biurtu dezakizut.)
  - Adiskidetasuneko prueba berri ori askoz andiagoa da nik itxedon (espera) nezaken guztia baño.
  - Lotsatzen naiz zuri neke ori emana.

## Eskerrak artzeko= errezibitzeko

- Burla=(farre) egiten dezu.
- Orrek ez du merezi beraz itz egitea.=(aitatzea ere.)
- Ez ezazu itz egin orrezaz=(orren gañean)=(Ezeizu aitatu ori.)
- Atsegin det asko zu serbitu zaitudala=zuri lagundu dizudala.= zure onerako egin dedala.
- Zuk aiñetxo zelebratzen det.



## Miraria ta arritzea agertzeko

- Zer=(au) miraria!
- Zer=(au) marabilla!
- Ori guzien gain gañeko alabantza da.
- Gauza ederragorik ez da ikusi.
- Arritzen nau, miraritzen nau.
- Arrigarria.
- Miragarria.
- Txoragarria.
- Ikaragarria.
- Gauza bakarra=(ez aditua).
- Al litzeke? (Izan liteke?) Izan litekena da?
- Ikusten dedana sinistuko det? Begiak engañatzen naute?
- Zer aditzen det?
- Ezin sinistu liteke.
- Zenbat eta geiago pensatzen dedan, ainbat eta geiago arritzen nau.
- Zeñek sinistuko ote zuen? Zeñi irudiko ote zitzaion?
- Itxedongo (esperatuko) ote zuten?
- Alabainere ona da ori!
- Nola! Erazkiro? (formal?)
- Benetan?

## Damua ta miña aditzera emateko

- Zer errukia!=(au lastima!)
- Zer zorigaistoa!=(au desgrazia!).
- Nere Jaungoikoa! Freskua nago! Luzitua nago!=Au lana! Au burubidea!
- Asko sentitzen det.
- Asko txit sentitzen det.
- Barrengo=(biotzeko) damua kausatzen dit.
- Orrek gogaitzen (desesperatzen) nau.
- Ori ikaragarria da.
- Gauza txit iguiña (desagradablea) da.
- Orrek illeak laztu=(zutatu)tzen ditu.
- Au ikaragarria!
- Nere zorigaistokoa!
- Geiago ezin det!



## (Atsegiña), Kontentua, Poza, agertzeko

- Asko atsegin det=(alegratzen naiz): zelebratzen det.
- Txit kontentu nago=pozik nago.
- Kausatzen dit satisfazio bizi (aundi) bat.
- Orrek kausatzen dit atzegiñ=(poz) andiena.
- Patu onekoa naiz gauza guzien gañean=(geiegian).
- Nere naierara irteten zait guzia.
- Biz ordu onean: pozkida ematen dizut.
- Zoriona opa dizut biotzetik.
- Au ditxa!
- Au poza!
- Au atsegiña!
- Zer kontentu nagoen!
- Zer zorionekoa naizen!
- Au guzizko miraria!

## Bere atsekabea aditzera emateko eta erantzukitzeko

- Oh! Zer lotsea!
- Au gaiztakeria! Iguingarria da! Ori lotsagarria da!
- Lotsa ematen duen gauza da.
- Zeiñ ikaragarria dan ori!
- Nola ori=(orrelakorik) egin zezakezun?
- Nola orren gaiztoa izan zaitezke?
- Ori txit gaizki egiña da.
- Gaizki egiten dezu.
- Txit deskontentu nago zuzaz.
- Asko da, esaten det=(ixo).
- Zaude geldi=(geldirik).
- Pikaroa!=(gaizki azia=lotsagabea).
- Pazienzia bukatzen zait.
- Ixil zaite ix!! txito!!
- Erausi gitxiago.
- Ez det sufrituko.
- Begira beste baterako=(batean).
- Iruki ezazu gogoan beste baterako.



## Kolera aditzera emateko

- Txit aserratua nago=(aserre naiz).
- Sumindua=furiosua nago.
- Eziñ egon naiz aserrez (enpatxuz) beterik.
- Ori allegatu (sartu) zait biotzeraño.
- Bekaiztua nago.
- Ez nago unore onean.
- Ez nazazu atera nere sazo (giro)tik.
- Bada kondenatzeko aiña (bada).

## Adiskidetasuna eta alaitasuna aitzera emateko

- Nere adiskidea da.
- Nere adiskide (adiskiderik) onena da; nere adiskidetatik onena da.
- Nai diot eta estimatzen det.
- Biotzekoak gera.
- Utsieziñak gera.=Elkar ezin utsi degu.=Elkar gabe ezin egon gera.
- Txit elkarganatuak gaude.
- Elkar txit ongi daramagu=(artzen degu)=Txit ongi elkarganetzen gera.
- Bere adiskidetasunaren milla prueba eman dit=(eman diskrit).
- Lenbiziko ezagueratik kariñua artu nion.
- Ez degu elkarrentzako sekretorik=gauza ixillik=ixilmandaturik.



## Bekaitza ta gorrotoa aditzera emateko

- Gizon ori etzait gusta (gogora)tzen.
- Ezin sufritu diot=gogogaizgarri det.
- Ezin gorde det gorroto artu erain didana.
- Gorroto dit.
- Beregan guzia da iguigarria.
- Ez du inorekin begirunik=(atenziorik).
- Bere arpegiak dauka ez dakit zer iguigarri.
- Orrek dakarkio mundu guztiaren gorrotoa.
- Bere arpegiak ez du ezertxoere naigarririk.
- Alegiña alde egiten diot.
- Ez du egiten mundu guziari atsegin, eta guztiak gogaitu baizik.
- Zer danki=(itxura)eramaezgarrigoa!
- Zer gizon nazkagarrigoa!
- Jainkoari eskerrak joan danean.

## Denbora

- Zer denbora dago?
- Denbora ederra dago txit.
- Gaur denbora ona egingo du.
- Bart euria egin duelarik.
- Aizea mudatu da.
- Denborak euri antza dauka; arpegi txarra dauka.
- Odeatzen ari da.
- Euri tantoak erortzen dira.
- Euri jasa txit andia ari da.
- Turmoia aditzen dezu?
- Jesus! Au eguraldia!
- Gau guztian tximistak gelditu ez dira.
- Oiratzean turmoiak asten ziran.
- Oñazkar bat erori da.
- Kaskarabarra ari da.
- Atertzen ari da.
- Odeia garbitzen ari da.
- Begira zer ustargi ederra!
- Eguraldia ondu du.
- Eguzkiak kiskaltzen du.
- Bero bat egiten du ezin agoantagarria.
- Izerditan ur egiña nago.
- Autz aundia dago.
- Gaur goizean intza zegoen.
- Aizea dabil.
- Aize oztxo dago.
- Aizea gitxitu da.
- Otz andia dago txit.
- Otz leorra dago.
- Izotza ari da.
- Otzikarak nago.
- Termometrua jaizten da.
- Ibaia ormatu du. Patiñak dabiltz bertan.
- Oraindik ormak irauten ez du.
- Izotza ari da; lurra ormatua dago.



Elurra ari da.  
 Elurra ari da ezin geiagoan, txit malo.  
 Gaur goizean egin duen elurak denbora asko bigundu du.  
 Izotza kentzen ari da.  
 Elurra urtutzen ari da.  
 Loi asko dago.  
 Denbora busti ta galgarria dago.  
 Illun dago.  
 Illargia dago.  
 Egunsentia da; argitu du.

## Edadea

Zenbat urte dituzu?  
 Amabi ta erdi.  
 Amabost urte beteak dauzkat.  
 Orain bete zaizkit ogei urte.  
 Ill onen aizkenean beteko ditut ogei ta bost urte.  
 Nere anaiak gaur zortzi bete zituen ogei ta amaika urte.  
 Zenbat urte ditu zure arrebak?  
 Berrogei urte beteak dauzka.  
 Ez dirudi orren zarra.  
 Dirudien baño zarrago da.  
 Badu emezortzi urteko alaba bat.  
 Orain dago bere sazoian.  
 Zenbat urte ematen diozkatzu nere aitari?  
 Onezkero berrogei ta amarretik igaroa izan bear du.  
 Alaxe da. Orain dauzka berrogei ta amabost.  
 Txit sendoa da berez; ongi arkitzen da.  
 Zeñ urtekoa da zure semea?  
 Milla ta zortzireun ta lau garrengo abenduko illekoa.





## Erregutzeko

Mesede bat egingo didazu?  
 Doai bat egingo ziñake?  
 Mesede bat eskatu dezaket?  
 Idukiko zenduke ontasuna...?  
 Izango ziñake ain ona...?  
 Egingo ziñakean, nai bazenduke, serbizio paregabe bat.  
 Ez lirazuke emango atsegintasun andiagorik.  
 Nai dezu egin...?  
 Atrebituko naiz erregutzera...? suplikatzera...?  
 Etzaite izan gorra nere erreguetara.  
 Zure uko batek atsekabetuko ninduke asko.  
 Egizu nigatik orrenbeste.  
 Nik erregutzen dizut.  
 Suplikatzen dizut arren.  
 Badakit zure ontasunak kaburik ez duena.  
 Au da bakarrik eskatzen dizudan mesedea.  
 Damu det biotzetik zu onela iguintzea.  
 Erregutzen dizut barka dizazula arren onela ernega erazitzea.  
 Jaungoioak moruz beteko zaitu bere mesedez.  
 Zure adiskidetasunetik ori espero det.  
 Kontatzen det zurekin, egia da?  
 Eskerrak emango dizkitzut.  
 Nere bizi guzian agradezituko dizut.  
 Nere agradezimentua izango da sekulakoa.

## Eskeintzeko

Utzi egirazu eskeñi deizazudan.  
 Zer eskeñi dezakizut gustoko gauzarik?  
 Egirazu mesede ezerezkeri au artzeaz.  
 Niri gusto ematea gatik arzazu.  
 Izan zaitte diña nere eskertasuneko siñale txiki oni on irizteaz.  
 Arren arzazu omenaje au.  
 Nere botoen eskeintza artu ezazu.  
 Ez daukat ezer zurea ez danik.  
 Nik daukadan pizka zurea da.  
 Borondate onez eskeintzet dizut.



## Ukatzeko

Ez dezaket.  
 Orixe ez dago nigan.  
 Ori niri ez dagokit.  
 Damu det, baña ezin liteke.  
 Zuk eskatzen dezuna ez dezaket egin.  
 Damu det txit asko ukatzea zuk eskatzen dezuna.  
 Nere kulpa ez dala jakiñen gañean zaude.  
 Orain ez dezaket.  
 Sazoi au ez da egokiena.  
 Nere adiskidea, barkaezazu.  
 Uste det barkatuko didazula.  
 Beste batean izango da.  
 Damu det biotzetik, sinistu ezazu.

## Naikida ta Baipena emateko

Nai det. Gogo aundiz. Amorio onez. Biotzez eta biziz.  
 Gusto aundiz. Kontentuz.  
 Zure agintera nago.  
 Zuk nai dezun bezela.  
 Konta ezazu; zaude deskansuz.  
 Aginduzu eta obeitua izango zera.  
 Guztia naiz zurea; zure agintera nago.  
 Gogoz egingo det.  
 Txit asko zelebratzen det onelako era izatea zuri laguntzeko.  
 Asko zelebratzen det enplea nazazun frankezaz nai dezunean.  
 Ezin ukatuko dizut ezerere.  
 Nere gogoari aurrera artu diozu.  
 Gauza andiago bat egin nai nuke zu gatik.  
 Iñor gatik egingo ez nukena egingo det zu gatik.



## Eskerrak emateko

Eskerrik asko.  
 Esker dizut.  
 Txit eskergai nagokizu.  
 Esker txit asko.  
 Milloi bat esker ematen dizkitzut.  
 Eskerrak ematen dizkitzut.  
 Askok agraiteziten det ontasun ori.  
 Txit eskergai nagokizu.  
 Ez dakit nola erantzun orrenbeste begiruneri.  
 Txit ona zera; ori ontasun aundia da.  
 Mesede asko egiten didazu; geiegi.  
 Mesedez moruz betetzen nazu.  
 Nola biurtu dezakizut zor zaitudana?  
 Adiskidetasuneko prueba berri ori askoz andiagoa da nik espera  
 nezaken guztia baño.  
 Lotzaten naiz zuri neke ori emana.

## Eskerrak artzeko

Burla egiten dezu.  
 Orrek ez du merezi aitatzeta ere.  
 Ezeizu itz egin orren gañean.  
 Atsegin det asko zuri lagundu dizudala.  
 Zuk ainetxo zelebratzen det.



## Miraritzea ta arritzea agertzeko

Au miraria!  
 Au marabilla!  
 Ori guzieren gain gañeko alabanza da.  
 Gauza ederragorik ez da ikusi.  
 Arritzen nau, miraritzen nau.  
 Arrigarria.  
 Miragarria.  
 Txoragarria.  
 Ikaragarria.  
 Gauza ez aditua.  
 Al litzeke? Izan litekena da?  
 Ikusten dedana sinistuko det? Begiak engañatzen naute?  
 Zer aditzen det?  
 Ezin sinistu liteke.  
 Zenbat eta geiago pensatzen dedan, ainbat eta geiago arritzen nau.  
 Zeñek sinistuko ote zuen? Zeñi irudituko ote zitzaion?  
 Esperatuko ote zuten?  
 Alabainere ona da ori!  
 Nola! formalkiro?  
 Benetan?

## Damua ta miña aditzera emateko

Au errukia!  
 Au zorigaistoa!  
 Nere Jaungoikoa! Freskua nago!  
 Luzitua nago! Au lana! Au burubidea!  
 Asko sentitzen det.  
 Biotzeko damua kausatzen dit.  
 Orrek gogait eraiten dit.  
 Ori ikaragarria da.  
 Gauza txit iguiña da.  
 Orrek illeak gogortzen ditu.  
 Au ikaragarria!  
 Nere zorigaiztokoa!  
 Geiago ezin det!



## Poza agertzeko

Asko atzegin det; zelebratzen det.  
 Txit pozik nago.  
 Kausatzen dit satisfazio andi bat.  
 Orrek kausatzen dit pozik andiena.  
 Patuonekoa naiz gauza guzien gañean.  
 Nere naierara irtetzen zait guzia.  
 Biz ordu onean; pozkida ematen dizut.  
 Zoriona opa dizut biotzetik.  
 Au ditxa!  
 Au poza!  
 Au atsegina!  
 Zer kontentu nagoen!  
 Zer zorionekoa naizen!  
 Au guzizko miraria!

## Bere atsekabea adierazitzeko eta arpegira emateko

Oh zer lotsea!  
 Au gaiztakeria! Iguigarria da! Ori lotsagarria da!  
 Lotsa ematen duen gauza da.  
 Zeñ ikaragarria dan ori!  
 Nola egin zezakezun orrelakorik?  
 Nola izan zaitezke orren gaiztoa?  
 Ori txit gaizki egiña da.  
 Gaizki egiten dezu.  
 Zuzaz txit deskontentu nago.  
 Asko da, ixo.  
 Zaude geldi.  
 Gaizki azia!  
 Paziencia bukatzen zait!  
 Ixil zaite! ix!! txito!  
 Erausi gutxiago!  
 Ez det sufrutuko.  
 Begira beste batean.  
 Irukizu gogoan beste baterako.



## Arrabia aditzera emateko

Txit aserre nago.  
 Arrabiatua nago.  
 Enpatxuz beterik ezin egon naiz.  
 Ori sartu zait biotzeraño.  
 Indiñatua nago.  
 Ez nago unore onean.  
 Nere girotik ez nazazu atera.  
 Kondenatzeko aiña bada.

## Adiskidetasuna ta alaitasuna aditzera emateko

Nere adiskidea da.  
 Nere adiskiderik onena da. Nere adiskidetatik onenetakoa da.  
 Nai diot eta maitatzen det.  
 Biotz mamikoak gera.  
 Elkar gabe ezin egon gera.  
 Txit elkarganatuak gaude.  
 Elkar txit ongi artzen degu.  
 Bere adiskidetasunaren milla prueba eman dizkit.  
 Aurreneko ezagueratik kariñua artu nion.  
 Ez degu elkarrentzat ixill mandaturik.



## Ezin ikusia ta gorrotoa aditzera emateko

Gizon ori etzait gogoratzen.  
 Ezin sufritu diot.  
 Ezin gorde det gorroto artuerazi didana.  
 Gorroto dit.  
 Beregan guztia iguigarria da.  
 Iñorekin begirunik ez du.  
 Ez dakit zer iguigarri daukan bere arpegiak.  
 Orrek dakarkio mundu guztiaren gorrotoa.  
 Bere arpegia naigarririk ezertxo ere ez du.  
 Alegiña alde egiten diot.  
 Mundu guztia gogaitu ta guziaz utsegin besterik egiten ez du.  
 Zer itxura eramaezgarrigoa!  
 Zer gizon nazkagarrigoa!  
 Jainkoari eskerrak joan danean.

## Diosala egiteko eta jakiteko norbaiten osasunagatik

Andrea, dama, onoratzen naiz berorri diosala egiteaz. Egun on daukela.  
 Jauna, bai berorrek ere.  
 Egun on, adiskidea.  
 Nola zaude? Zer modu? Zer diozu?  
 Txit ondo. Modo onak; mañak lenak. Ala ala. Berori serbitzeko.  
 Zure galdea. Eta zu?  
 Ni ez nago ondo.  
 Sentitzen det.  
 Zer dezu?  
 Eztula. Otzikara. Buruko miña.  
 Kalentura iruki det.  
 Gau guztian begirik ez det bitu.  
 Noiz ezkerro zaude miñez?  
 Nere osabaren etxean zu ikusteko gustoa izan nuen egun ezkerro.  
 Onenbeste denbora? Zerbait artzen dezu?  
 Tisana artzen det eta beroan egon.  
 Uste det ori ez dala ezer izango.  
 Uste det laister sendaturik ikustea.  
 Eskerrik asko.  
 Nola dago emaztea?  
 Txit onik; osasun ederrarekin dago.  
 Atsegin det. Eman zaiozu nere eskumuñak.  
 Zure aita jauna beti gaizki dabill?  
 Obeto dijokio, Jainkoari eskerrak.  
 Atsegin det.  
 Eta zure ama andreak zer dio?  
 Ala; beti bezela.  
 Nere ama ezin irten da gelatik.  
 Ez nekien miñez zegoela.  
 Gauza gutxi da; baña bere edadean kontu artu bear zaio.  
 Zure anaia beti bezela ongi arkitzen omen da.  
 Bera ta bere seme guztiak txit mardulak dira.  
 Egirazu mesede nere partez gorantziak emateaz.  
 Etzait astuko.  
 Nere eskumuñak etxeko guziaz.



## Agertu bat

Txintxerrian deitzen dute. Aldabak ots egin du.  
 Joan zaite zein dan ikustera.  
 Zoaz atea irikitsera.  
 Urlija jauna da.  
 Datorrela aurrera.  
 Zenbat atsegin dedan zu ikusteaz!  
 Asko zelebrazten det zu ikustea.  
 Eun urte bada zu ikusitako poza izan nuela.  
 Eskertzen dizut gu ikustera etorri zeralako.  
 Txit maitagarria da guzaz oroitzea.  
 Zu ikusteakin beti artzen degu poz bat.  
 Zure laguntasuna txit maitagarria da guretzat.  
 Artuzu jartokia, eserizaita.  
 Jaun oni ipiñi zaiozu silla bat.  
 Sofan eseri zaite.  
 Ona emen silla, jarri zaite.  
 Egirazu gusto esertzeaz.  
 Eseri nai ez dezu piska bat?  
 Berandutik berandura baizik etzera ikusten.  
 Bildur nintzan zu ikusteko pozik ez izateaz.  
 Denbora asko da zu ikusteko poza ez daukedala.  
 Atzo joan nintzan zu ikusteko ororea izatea gatik.  
 Orduantxe irten ziñan.  
 Etziraten ezer esan.  
 Asko sentitzen det etxen ez arkitu izatea.  
 Uste det egingo didazula ororea nerekin baskaltzeaz.  
 Nai dezu gurekin baskaldu? Esker milla.  
 Asko agradezitzen det zure begirunea.  
 Ezin dezaket poz ori iruki.  
 Beste leku batean itza emana naiz.  
 Ezin gelditu ninteke.  
 Uste det barkatuko didazula.  
 Bakarrrik sartu naiz nola zauden jakiteko.  
 Esker dizut agertzea.  
 Zure begirunea agradezitzen det.  
 Agertze onek poz andia eman dit.

## Adiosa edo despedida

Nola! Usten al gaituzu?  
 Oraintxe etorri bazera.  
 Piska bat zaude.  
 Zuen ondoan geiago ezin egonarekin atsekabe andia artzen det.  
 Joan bearra daukat. Berandutzen dijoa.  
 Txit berandu da.  
 Apartatu bear degu.  
 Utzi bear zaitut.  
 Biurtzeko denbora da.  
 Txit presaka zaude.  
 Zergatik dezu ainbeste presa?  
 Lan asko daukat.  
 Gaur lanez ingurutua nago.  
 Ezin laga daizkedan lanak dauzket.  
 Txit urrutira joan bear det.  
 Leku askotara joan bear det.  
 Alkar arturik gaude lan baterako.  
 Txit presako lanak dauzkat.  
 Berandu allegatuko naizela beldur naiz.  
 Atsekabe det zu uzteaz.  
 Beste batean egongo naiz denbora geiago.  
 Berriz laister uste det ikusiko zaitudala.  
 Laister irukiko det zu berriz ikusteko gustoa.  
 Al badet biar biurtuko naiz.  
 Etzaitut atsekabetu nai.  
 Damu det zure agertua ain laburra izatea.  
 Beste batean geiago egongo zera.  
 Noiz izango degu berriz ikusteko poza?  
 Al dedan laisterrena.  
 Lan gabe nagoenean bertan.  
 Adiu.  
 Ongi bizi.  
 Egun on. Gau on.  
 Ondo egon zaite.  
 Beste bateraño; berriz ikusteko ororea izan arte.





Ikusi arten (sic).  
 Urrena arte.  
 Zurea naiz.  
 Ez adiorik.  
 Ez naiz despeditzen.  
 Gau on.

## Oetik altxatzean

Nork deitzen du atean ain goiz?  
 Nor da or?  
 Atea irikizu.  
 Ez dago itxia.  
 Giltza bertan dago.  
 Nola! Oraindik oean zaude?  
 Jaikitze ordua da.  
 Berealaxe altxako naiz.  
 Zer ordu da?  
 Bederatziak.  
 Orantxen jo dute bederatziak.  
 Nik ez nekien zer ordu zan.  
 Atso astu egin zitzaidan erlojua maneatzea eta gaur goizean ostetan  
 gelditu da.  
 Ondo lo egin dezu?  
 Txit ondo, eskerrik asko.  
 Ez dakit nola lo egin daikezun ainbeste denboran.  
 Ez naiz bada ain nagia.  
 Bart txit berandu oira nintzan.  
 Amabi ta erdiak ziran.  
 Ni ere berandu oiratzen naiz, baña beti jaikitzen naiz seiretan.  
 Oitura txit ederra da.  
 Osasunarentzat txit gauza ona da.  
 Nik zenbat eta lo geiago egiten dedan, gale geiago irukitzen det.  
 Jeikitzen ez banaiz eznatu bezain laister loak artzen nau berriz.  
 Zer eguraldi egiten du?  
 Txit ederra.  
 Zer deitzozu, joango giñake jira bat ematera?  
 Uste dezu izango degula denbora gosaldtu baño len?  
 Igaro dezakegu ordu bete.  
 Modu ortan jaikitzero noa, eta joango gera elkarrekin goizeko pres-  
 kura artzera.



## Oiratzean

Berandutzen asten da.  
 Oiratzeke denbora da.  
 Zure adiskidea ez da itzuli oraindik.  
 Seguro nago ez duela berandutuko.  
 Ez da berandu; amarrak baizik ez dira.  
 Lo gale andia daukat.  
 Nekatua nago.  
 Nekatzen danean oea atsegin da.  
 Deitu dute.  
 Nagusia da.  
 Alaxen da; bera da.  
 Paseo on bat eman dezu.  
 Anitz ona; gabiro txit ederra dago.  
 Etzaude nekaturik?  
 Piska bat.  
 Nai dezu atzedan piska bat?  
 Milla esker; berealaxe oeratzera noa.  
 Juan, egizu mesede argia ekartzeaz.  
 Gabon irukizu.  
 Bai zuk ere, alaber.  
 Juan, ekartzu berogarri bat.  
 Oea berotu egirazu.  
 Jauna, utzi bizat kortiñak zabaltzen.  
 Itxi itzatzu zelosiak ere.  
 Ekatzu nere oerako txanoa; baita nere zapatak ere.  
 Emen daude, jauna.  
 Berealaxe oera noa.  
 Ondo arropatua dago?  
 Bai, baña oea gogorra ote dagoen nago.  
 Beti bezela egin dedalarik. Bearbada nekatuak egingo du.  
 Argia utzi ezazu, loak artzen ez banau irakortzeko.  
 Komoda gañean dagoen liburua ekartzu.  
 Au?  
 Ez, ori gramatika bat da.  
 Ez dago besterik.

Ez da ardura.  
 Ez det irakorriko; joan zaitezke.  
 Fosforoa mai gañean utzi ezazu.  
 Argia itzali ezazu.  
 Ez aztu biar seiretan eznatzea.  
 Egingo det utzi gabe.



## Jaun bat jantzitzeko

Juan, jantzi nai det.  
 Ekartzu nere soñekoa.  
 Nai du bata eman deiodan?  
 Ekarri egirazu alkandora ta gorbatin garbiak.  
 Nai du alkandora fiñ bat?  
 Ez, betor basto bat.  
 Ekarrizatzu nere galtza motxak, kaltzerdiak eta pantaloia.  
 Kaltzerdi arizkoak edo lanazkoak nai ditu?  
 Arizkoak jarriko ditut bero egiten duelako.  
 Kaltzedi oiek urratuak daude.  
 Maneatu eragingo ditut.  
 Emen dago beste pare bat.  
 Nere zapatillak.  
 Ur beroa botazu palanganara.  
 Bizarra kentzera noa.  
 Nagusiaren labañak ez dute ebakitzen; batak ortza dauka.  
 Txorrostzaleari eraman bear zaizka txorrostzeko.  
 Jaboia ta ispillua emen daude.  
 Ur au irakiten dago.  
 Otza emen dago.  
 Betor eskuoial bat.  
 Bizarra kentzen dedan artean jarrizu alkandora berotzen.  
 Ara emen orraziak.  
 Olioia betor.  
 Nere zapata berriak garbiak daude?  
 Bai jauna.  
 Baña botak jarriko ditut loiak egongo didalako.  
 Ekartzu sedasko nere txaleko beltza.  
 Zein kasaka ipiñi nai du?  
 Berria.  
 Nere kasaka urdiña zikiña dago; mantxa kentzaleari eraman bear  
 zaio.  
 Beste lebita jantzi nai ez du?  
 Arrazoi daukazu.  
 Eskobillatuzu nere txapela.

Eskobilla ez det arkitzen.  
 Emen dago.  
 Ekartzu pañuelo bat eta nere guanteak eta guardasola.  
 Poltsea astzen zaio.



## Emakume bat jasteko

Etxeko andreak deitu du?  
 Bai, sua pistuzu eta nere tokadorea prestatuzu.  
 Betoz nere kaltzerdiak eta lokarriak.  
 Emen daude, andrea.  
 Orraztzeko oiala ekatzu.  
 Palanganara ura botazu.  
 Ura ez dago txit beroa.  
 Ez da ajola.  
 Almendrazko pastilla ez det billatzen.  
 Emen dauka, andrea, goizean perfumegillearen etxean erosi erazi  
 dedan pakete bat.  
 Non da nere ortzetako eskobilla?  
 Betoz nere ortzetako autzak.  
 Esku oialak mudatuitzatu.  
 Barka bizat, andrea, txit garbiak daude.  
 Ispillu au txit zikiña dago; igortzizu piska bat.  
 Orraziak garbitzatu.  
 Kontuz orraztu nazazu.  
 Illea kiskurtu nai ez det.  
 Zapatak ala botiñak ipiñi nai ditu?  
 Nere terziopelo beltzezko botiñak, mesede egiten badidazu.  
 Kortsea lotuirazu.  
 Geiegi estutzeirazu.  
 Kordoia piska bat askairazu.  
 Aski da, ongi dago.  
 Ekatzu musuliña lanazko soña.  
 Orrats bat jarrizu kuelloan.  
 Kutuna komoda gañean dago.  
 Jesus! pikatzen nazu!  
 Barka bizat, beatzak gogorturik dauzkat.  
 Zinturoia eztutuirazu piska bat geiago.  
 Belarrikoak ekartzu.  
 Nere erlojua gabineteko tximini gañean dago.  
 Ekatzu terziopelo beltzezko txapela.  
 Batistazko pañuelo bat.

Zoaz kotxeroari esatera zai nagoela.  
 Itxozu piska bat; ekatzu mangittoa ta guanteak.  
 Atean dago kotxea, andrea.  
 Gordeitzatzu nere gauzak, eta gela konponduzu.



## Gosaria

Gosaldu dezu?  
 Oraindik ez.  
 Atzegin det; nerekin gosalduko dezu.  
 Txit gustu aundiz.  
 Deitzera noa jakiteko gosaria prest dagoen.  
 Gosaria maian dago, jauna.  
 Guztiak jan-lekuan daude.  
 Bereala jatxiko gera.  
 Emen eseri zaite.  
 Zer nai dezu eman deizudan?  
 Urdai azpia edo txirlak nai dituzu?  
 Zuk nai badezu, txirla batzuek.  
 Txit preskuak daude.  
 Emen dauzkatzu opeak eta opillak.  
 Egirazu mesede manteka onera emateaz.  
 Ez dezu ezer jaten.  
 Nai dituzu arraultza egosiak?  
 Zuk uzten badezu, artuko ditut alkatxofatxo oietatik.  
 Arritzatzu, arritzatzu; emen dauzkatzu olioia ta ozpiña.  
 Or daukazu zure ondoan ardo zuria.  
 Eskerrik asko; gosaltzen ez da edaten ardorik beinere.  
 Arrezazu taza bat te.  
 Gusto aundiz.  
 Oraintxe artu det taza bat kafe esneakin.  
 Gustatzen zatzu txokolaterik?  
 Batzutan artzen det.  
 Taza bat kafe artu bear da jana iritxi erazitzeke.  
 Onek indar asko du?  
 Txit ederra da.  
 Moka egiazkoa da.  
 Bear ainbeste azukre badauka?  
 Arzazu azukrea.  
 Ez dezu esango ezetz (esto significa el original, pero me parece ke debe sobreentenderse tambien y es mas oportuno) ez dezu esango (o esan bear) ez dedala.

Esker milla; bukatu det.  
 Txit ongi gosaldu det.  
 Ezin baskalduko det.



## Baskaria

Asko atsegin det zu ikustea. Egingo dirazu mesede nerekin baskal-tzeaz, ez da ala?

Esker milla; pozik egingo nuke, baña ez nago jantzirik.

Ez, ezeizu utsi orregatik; bakarrik egongo gera; nere emaztea ta semek kanpoan daude.

Zer ordutan jaten dezu?

Ordu erdi labur barru.

Ematen dizut baiezkoa, lagunduko dizudala, baldin ni gatik geiago jartzen ez bada.

Eskeintzen dizut biotzetik.

Eta ondo egiten dezu.

Goazen jantokira; zopea maiean dago.

Eseri zaite or su ondoan.

Milla esker.

Arrotzaren zopea gustatzen zatzu?

Fideoak naiago dituzu?

Baldin kontatu banu zu baskaltzen irukitzeko satisfazioarekin, agin-duko nuen makarroiak egiteko.

Eskerrik asko; ez dute faltarik egiten neretzat.

Zopa au ederra dago.

Nai dezu aragi piska bat?

Beldur naiz ez dala egongo ondo egosia zuretzat.

Etzait gustatzen geiegi egosia.

Artzazu txalaren gibela.

Botaiozu limoi zumua.

Eskatuko dizut ari iztar piska bat.

Giarrea edo gizona gustatzen zatzu?

Egirazu mesede probatzeaz eper enpanada au.

Egaztiakin egindako orren zaleago naiz.

Arrairik jan ez dezu?

Barkairazu; izokia orantxe artu det.

Lenguadu oiek ez dituzu probatu nai?

Gatzontzi ori eman nai didazu?

Juan, jaun oni ogia emaiozu.

Ganibeta ondo ebakitzen duen bat ekartzu.

Orain bidalduko dizut ollaskoaren ego bat.

Naiago dezu iztarra edo buztan aldetik?

Au letxuga ederra!

Juan, platerak aldaitzatzu.

Ekarrizatzu kutxara bat eta tenedore bat.

Begira; mantelera ixuri dezu saltsa.

Nolakoa aurkitzen dezu arkume au?

On ona.

Poztutzen naiz asko zuri gustatzen zatzulako.

Ezpinakak gustatzen zatzu?

Patatak eskatuko dizut.

Ez dezu edaten.

Utzi egirazu Maderako ardo onetatik kopara botatzen.

Or daukazu ardoa zure aldean.

Nai dezun bezela serbizaite.

Utzi egirazu ollanda onetatik ematen.

Eskerrik asko; geiegi jan det; bear nuen baño askoz geiago.

Ikusi dezu nere itza bete dedala; ez degu iduki egunero baño geiago.

Erregeren baskari bat da; amarrek ainbeste jan det.

Juan, postreak.

Ea, txanpañatik beste kopa bat.

Ezin det.

Artzazu nai dezuna; emen dauzkatzu udarak, matsak.

Juan, emaioguzu kafea. Gero joango gera jira bat ematera.

Ekartzazu ur beroa aoa ta eskuak garbi ditzagun.



## Ostatu bat

Saloian jan nai dute jaun oiek, ala aparteko gela batean?  
 Iguk gela bat, pake obean egongo gaituk.  
 Igo bitez nai badute lenbiziko bizitzara eskillara onetatik.  
 Mutill, mantel oiek etzeaudek garbiak.  
 Aldatzera noa.  
 Iguk zabau ta serbilleta fiñaguak.  
 Kubiertoak jarritzak beste mai gañean.  
 Betor lista.  
 Emen dago, jaunak.  
 Ekartzak onelako zopa ta ogi biguña.  
 Kutxara aundi bat bear diagu.  
 Zer ardo nai dute, jaunak?  
 Ardo gorria.  
 Arrai txit preskorik badago?  
 Orantxe etorri da.  
 Ekarriguk legatza ta amorraiak.  
 Ekari (sic) plater garbi bat.  
 Tenedorea ta ganibeta aldairek.  
 Sakakortxo bat badek?  
 Botellea tapa bage dago.  
 Mutill, ipiñitzak emen pilloan plater, botella ta kopak, eta gerok ser-  
 bituko gaituk.  
 Naidute azarik, koliflorrik edo illarrik?  
 Iguk esparraguak.  
 Manteka txit preskua daguela.  
 Ekarriguk beiaeren solomoa zizakin eta ollasko erre bat berrokin.  
 Basauntza ere nai diagu.  
 Nolakua?  
 Mostatza ekartzak.  
 Txalaren ere oiek txit gaziak zeaudek.  
 Eginzaiguk letxugakin ensalada bat, eta bota egiozkak, kaputxinak  
 eta arrautza gogorrak.  
 Ospiñ onek ezer balio ez dik.  
 Olio onek usai txit andia zeaukak.  
 Jaunak, Italiako olio da.

Izan litekek, baña denbora asko dek irten zala bere erritik.  
 Saltserea eramaik.  
 Iguk pabiak, pikuk, Amerikako piña bat, intxaurrek eta konpota.  
 Nik nai nitek krema bat.  
 Ekartzak aguardientea zeren egin nai diat naranjazko ensalada.  
 Azukrea ez dago txit zea.  
 Malagazko botella bat, nai badek.  
 Emen daude kopatxoak.  
 Ekarriguk kafea; txit beroa dagoela.  
 Ekartzak kontua.  
 Emen dago, Jaunak.  
 To propinatzat.  
 Bidez pagatuko diagu mostradorean.



## Kafe bat

Sar gaitezen kafe onetan eta an itz egingo degu gustorago.  
 Bear dan bezela egarriak nago eta komeni zait edatea.  
 Nai dezu edan esne izoztua edo limoi ura?  
 Eskerrik asko, zerbeza artuko det.  
 Mutill, ekatzak zerbeza zuria.  
 Ekartzak te.  
 Jaun onek ere artuko du?  
 Ez, emango dirak pontxe txit beroa.  
 Nik neretzat artzen det goizean jikara bat txokolate eta baskal ondolan te.  
 Guzira egiña nago ni.  
 Adiskidea, egingo zenduke mesede, paper ori irakortzen dezunean emateaz?  
 Ara emen, jauna, irakorri det.  
 Politikari darraizkiozu?  
 Gitxi; ez det irakortzen teatroari eta komertzioari dagokiona besterik.  
 Ezeren berririk badago?  
 Gaur ez dago ezer bearrekorik.  
 Mutill, paper franzesik badek?  
 Ez jauna, Gobernuak debekatu ditu kafetan.  
 Mostradoren gañean dagoen paper ori ez dek erbestekoa?  
 Bai jauna, ingelesa da.  
 Paper alemanak ere badauzkagu.  
 Nere adiskidea, biajero zintzo batek ez du politikaz itz egin bear agerian.  
 Pagatu dezagun eta jarraiozun gure paseori.  
 Utzi egirazu pagatzen; beste batean etorriko zatzu zure txanda.

## Argia

Ekartzu argia.  
 Kandelak ez dituzu irazeki.  
 Bujiak irazekitzatzu.  
 Arañako kandelondoak kenduiztatzu.  
 Lanpara zergatik piztu ez dezu?  
 Laparan olioak botazu.  
 Despabiladoreak ekarriztatzu.  
 Garbitzatu kandeleroen arendelak.  
 Kandela au urtutzen da.  
 Kandela despabilazu.  
 Elizatan atxak erretzen dira.  
 Zirio pazkoakoa beinkatu da.  
 Beneziako bujia txit gai ederrekkoa da.  
 Arritzekoa da nola argi egiten duen.  
 Seboak usai gaiztoa dauka.  
 Lanpararen olioak apestatzen du.  
 Klarifikatzen danean ez dauka usairik.  
 Utzi egirazu argi egiten.  
 Eskerrik asko, eskillaran badago beloi bat.  
 Iluminazioak ikustera bazoaz?  
 Onelako palazioan egongo dira bi milla argi gasakin.  
 Gasak ondo irten du; erri guzia gertu dago ala argitua.





## Sua

Sua piztu dezu?  
 Suari irazeki egiozu.  
 Nai dezu sua egin dezadan?  
 Su on bat egizu.  
 Ori su txarra!  
 Ondo illa dago su ori.  
 Su txarra daukazu.  
 Ez dijoa ondo su ori.  
 Ez diozu kontu artzen suari.  
 Ez dezu pistzen su ori.  
 Sua itzaltzen laga dezu.  
 Sua itzaltzen da.  
 Sua ez dago guziz itzalia.  
 Illatiak arrimatu itzatzu.  
 Emen dago atizadorea.  
 Atoz sua maneatzera.  
 Egur geiago botaiozu.  
 Sua itzalia dago.  
 Berriz piztu bear da.  
 Jarriozu azpitik ota edo arbasta batzuek.  
 Orain botaiozu bi edo iru egur.  
 Sua bereala illa dago.  
 Aize emaiozu.  
 Tenazan billa nabil.  
 Bazterrean daude.  
 Aspoa non da?  
 Emen dago.  
 Aize emaiozu.  
 Ezeiozu orrelako indarraz eman.  
 Su burriñak aurreraitzatzu piska bat.  
 Au kea! Iriki egitzatzu leioak edo atea.  
 Palea artuta botaiozu ikatza.  
 Ez batean geiegi bota.  
 Ai! au usai gaiztoa!  
 Botatzen duen lurruña da.

Berealaxe irazekiko da sua.  
 Bereala piztuko da.  
 Garra egiten asten da.  
 Ori da su ona.  
 Kedarra usaia dago.  
 Ez da asko tximinia garbitu zala.  
 Ni kiskaltzen naiz; ekatzu pantalla bat.  
 Piska bat irten bear det.  
 Sua itzalizu.  
 Jarrizu su-burriña illatiak amildu ez ditezen lurrera.



## Karta bat eskribitu

Eman daikidazu pliego bat paper?  
 Nolako papera nai dezu?  
 Zer paper deseatzzen dezu?  
 Kartaen papera.  
 Badezu karten paperik?  
 Ez daukat pliego bat ere nere pupitrean.  
 Ez daukat paper ordinarioa baizik.  
 Ona emen pliego bat; asko ez bada, oraindik badauzkat geiago zure disposiziora.  
 Kuadernillo bat daukat.  
 Bear dezu?  
 Egirazu mesede bi pliego emateaz.  
 Pliego bat askoko da.  
 Berealaxe itzuliko dizut; eroatera bidaltzera noa.  
 Ez dago presarik.  
 Gaur karta bat eskribitu bearra daukat.  
 Pluma bat bear dezu?  
 Badauzkat txit onak.  
 Eskerrik asko; burnizko plumak dauzkat.  
 Nik daukadan guztia zure agintera dago.  
 Esker milla.  
 Tinta au lodigi dago.  
 Ez du korritzen.  
 Zuria da; ez du ezer balio.  
 Salbadera ekatzu.  
 Ekarri egirazu argia, lakrea ta tolestagarria.

## Korreoa

Korreoa noiz irtetzen da emendik?  
 Igandetan ez beste egun guztietan.  
 Zure karta korreorako da?  
 Prezioa da gaur irtetzea.  
 Ezin galduko dezu denborarik, bada irtetzera doa.  
 Ez du itxoongo asko.  
 Illak zenbat ditu?  
 Gaur iru.  
 Ez; lau.  
 Etzait sobrea besterik falta jartzea.  
 Ekarrirazu; ekatzu oblea bat.  
 Zer egin diot silluari?  
 Non ote da sillua?  
 Nere sillua ezin billatu det.  
 Arkitu det; emen dago.  
 Karta au korreora eramaizu.  
 Frankeatuko dezu.  
 Etzaitzu astuko galdetzea frankeatu bear dan ala ez.  
 Zabiltz.  
 Nere karta korreora bota dezu?  
 Denboraz eldu ziñan?  
 Korreoa irtentzan?  
 Nere karta frankeatu dezu?  
 Zenbat pagatu dezu?  
 Neretzat kartarik bada?  
 Galdetu det eta etzekiten zer eranzun.  
 Korreoa orantxe allegatu da.  
 Joan zaite bereala nere kartak ekartzera.  
 Oraindik ez dituzte partitzen.  
 Zer egunetan etortzen da onera korreoa?  
 Korreoa etorri da?  
 Karta bat iduki bear det apartatuan.  
 Korreoko etxea non dago?  
 Emendik urruti dago?  
 Nai dirazu izentatu bidea?



Adiskide batekin billatzea.

Zu zera?

Neroni.

Ongi etorri.

Atsegin det asko zu ikusteaz.

Zer poza daukadan zu ikusteaz!

Atsegin det zu emen billatzeaz.

Noiz ezkerro zaude Amerikatik biurtuta?

Noiz itzuli zera kanpotik?

Joan dan larunbatean biurtu nintzan.

Bart biurtu nintzan.

Nola etorri zera?

Korreoakin.

Burni bidetik edo baporeko (lurruñ) ontzian etorri bear zenduen.

Bai, baña nere emazteakin ninjoan, eta oni etzaio gustatzen asmazio berri oiek.

Etzenduen an uda guztia igarotzeko asmoa?

Zerk itzuli erain dizu ain laister?

Emen neronek bukatu bear nituen egitekok.

Nola arkitu dezu biajea?

Txit atsegiña.

Biaje ona egin dezu?

Txit ona, eskerrik asko.

Noiz izango det atsegiña zu nere etxean ikusteaz?

Noiz etorri nai dezu; noiz etorriko zera gurekin baskaltzera?

Ez dakit, lan batzuek egin bearrak dauzkat.

Poz andia izango degu zu ikusteaz eta zurekin itz egiten.

## Jostoratzeko lana

Jostoratz bat bear det.

Zer jostera zuaz?

Nere mantala arabakatzera noa.

Jostoratz au lodiagi da.

Emen dago beste bat.

Au meagi da; zuloa autsia dauka.

Egirazu mesede aria, seda, algodoia, lana, guraizak eta orratzak emateaz.

Zer kolorekoa nai dezu?

Gorria.

Zertarako?

Nere lepokoa josteko.

Erropea markatzeko.

Au da zuk bear dezun kolorea?

Argiagia da.

Illunagia da.

Txit ondo joango da.

Zure mantaltxo bukatu dezu?

Beste egiteko bat iduki det.

Nere pañueloari aspildura bat egin diot.

Gero guanteak josi bear izan ditut.

Gero pasada batzuek bota diozkat muselinazko soñeko bati.

Almoadilla sartazu kajoian. Ez det nai geiago lanik egin.

Artzazu nere titara ere.

Agujajareta utzi dezu sartu bage.



## Pluma bat ebaki

Egingo dirazu mesede pluma bat ebakitzeaz?  
 Atso ebaki nizun bi.  
 Ez dute ezer balio.  
 Txartu egin dira.  
 Berriz ebaki bear dira.  
 Nai dezu zure pluma ebaki dezadan?  
 Esker izango dizut.  
 Asko nekatzen ez bazera.  
 Ez da batere nekerik.  
 Gogorra edo biguñia egotera nai dezu?  
 Naiago det piska bat biguñia.  
 Nolakoa nai dezu, letra txiki edo aundirako?  
 Ikusiezazu, nola arkitzen dezu?  
 Txit lodia dago.  
 Txit mea dago.  
 Ebaki txikia dauka.  
 Ebaki andiagua dauka.  
 Berriz ikusiezazu.  
 Ondo eskribitzen du.  
 Txit ederra dago, eskerrik asko.  
 Eman daikidazu piska bat zure plumaebakitzallea?  
 Zertarako?  
 Berriz ebaki nai nuke nere pluma.  
 Zergatik ez dezu usatzen zure plumaebakitzallea?  
 Ez dezaket usatu; ebakitzen ez du.  
 Txorroztu bearrean dago.  
 Txorrozgillearen etxera eraman bear da.

## Zapatari bat

Zapata batzuek nai nituzke; egiñik badauzkatzu?  
 Badauzkagu makiña bat pare zure disposiziora.  
 Ekarri egirazu neurri danetako pare batzuek.  
 Utzi egirazu proba erazitzen.  
 Neur noa probatzera.  
 Zabalegi dira; ez det kalzadore bearrik sartu erazitzeke.  
 Barka bizat, jauna, txit ongi dakazki.  
 Zapata sendoak ezin egonditezke zapatillak bezin neurrian.  
 Ikusi dezagun beste pare bat.  
 Estuagi dira.  
 Beatzetan miñ ematen dirate.  
 Miñ ematen dirate.  
 Erabilliaz zabalduko dira.  
 Ez det nai miñ eman dizaten.  
 Ezin ibilliko nintzake berakin.  
 Bi egunean erabilli ezkeroztik ez diote miñik emango.  
 Oña zabal iduki nai nuke.  
 Goragi datozkit; beeragi datozkit.  
 Beste pare bat egin beariko didazu.  
 Neurria artu egirazu.  
 Botak erakutsi egirazu.  
 Ona emen pare bat non daukan.  
 Kakoak ekatzu.  
 Orpoan estuagi daude.  
 Ekatzu etaratzallea atera erazitzeke.  
 Bota oiek ez dira neretzat egiñak.  
 Eramaitzatu ta egirazu beste pare bat lenbait leen.  
 Larru ona izan dedilla.  
 Ekatzu gai ona zure bezeroa izatea nai badezu.  
 Egingo didazu ere tafilete lasto kolorezko zapatillak.  
 Erregutzen dizut ez faltatzeko.  
 Astean aizkenera bidalduko diot enkargatu didana.



## Gobaratzalle bat

Etxeko gobaratzallea zera?  
 Bai jauna; bai andrea.  
 Gobararako erropa badaukat zuri emateko.  
 Kontuz garbituzu.  
 Noiz ekarriko dirazu erropa?  
 Datorren astean.  
 Iru egun barru bearco det.  
 Alegiña egingo det ekartzeko.  
 Ez dezu berandutu bear erropa ekartzen, gabe arkitu ez nadin.  
 Ez kuidaturik iduki, denboraz ekarriko diot.  
 Enkaje batzuek konpondu erazi nai nituzke ta gero garbitu.  
 Gustoz bere kargu egiten naiz.  
 Soñeko au garbituta distiatu egin bear da.  
 Kontu artzazu zabau au ez urratzeaz garbitzeko denboran.  
 Emen dago erroparen arrazoia.  
 Begirazu kontua ondo dagoen.  
 Ez jauna, sedazko pañuelo bat falta da.  
 Emen dago silla gañean.  
 Lista au eraman bearco dezu.  
 Erropa garbiaren lista.  
 Sei alkandora.  
 Lau alkandora petxerakin.  
 Oirako bi alkandora.  
 Sei pare kaltzerdi.  
 Franelazko bi galtza motx.  
 Bi galtza luze zuriak.  
 Elastiko bi.  
 Txaleko zuri bat.  
 Lotarako bi txano.  
 Sedazko sei pañuelo.  
 Sei pañuelo zuri.  
 Sei gorbata.  
 Soñeko bi.  
 Iru gona azpiko.  
 Amabi serbilleta barra gorriakin.

Sei serbilleta adamaskatuak.  
 Zabau bat adamaskatua.  
 Sei eskuoial.  
 Iru mantal.  
 Bi pare maindira.  
 Lau almoada-azal.

Beste batean goizago etortzeaz mesede egingo didazu.  
 Erropa lioa askatuzu.  
 Petxera oiek gaizki plantxatuak daude.  
 Kuello au ta orri oiek ez daude ongi almidonatuak.  
 Au gaizki plantxatua dago.  
 Eramaizu soñeko au ta berriro garbierazizu.  
 Arabatu bearco ere dira nere galtzerdiak.  
 Kontu idukiko det. Ez diot emango biderik aserratzeko.



## Pelukero bat

Jauna, berorren agintera nago.  
 Berorrek nai duenean bizarra kenduko diot.  
 Itxoon beza piska bat eskuoiala para deiodan.  
 Zuk nai dezun bezela; oraindik ura berotu ezda.  
 Barka bizat; ezda ala, makiña bat denbora da irakiten dagoela.  
 Egin beza mesede leio ondoan esertzeaz; eguraldia ain odeatua dago  
 eze ez da ongi ikusten.  
 Labañak, eskuoialak arkitzen ez ditut.  
 Komoda gañean daude.  
 Eskuoial garbiak tokadoreko kajoian daude.  
 Begira ebaki ez nazazun.  
 Ez beldurrik iduki.  
 Jaboiak usai gaiztoa dauka.  
 Jaboitxo bukatzen ari da.  
 Labañak larruan igaro itzatzu.  
 Giro onean daude; gaur goizean zorrotzailleak ekarri dikazkit.  
 Onera etorri baño leen arrian txorroztu ditut.  
 Ah! Zer egiten dezu? ebaki nazu.  
 Odola darit.  
 Ez da ezer; mazkulotxo bat ebaki det.  
 Nai du mostatxak piska bat moztzea?  
 Ez, ez; astu zait esatea ezpainpean ez bizarra kentzeko.  
 Ongi da; nai du perilla utzi dizaiodan?  
 Alaxe da.  
 Illea piska bat moztuirazu.  
 Atzetik motz nai du?  
 Bai, baña ez kopeta geiegi agertu.  
 Guraiza oriek ez dute ongi ebakitzen.  
 Belarria atzamurtu dirazu orraziaz.  
 Utzi bizat, jauna, burnia beroerazitzen.  
 Alperrik da; ez det illea txigortu nai.  
 Illetxigor diabru oriek illea zatitu eta urdintzen dute denbora baño  
 leen.  
 Baña moda da.  
 Esaizu pelukak saltzeko zuek asmatzen dituzuten modak dirala.

Izpilluan begiratu nai du? Illea berorren gustora ebakia dago?  
 Piska bat moztuitzatzu aurreko aldamenetan.  
 Aski da; orrela ongi dago.  
 Nai du olio usaidun edo pomada piska bat jarri deiodan?  
 Ezer nai ez det; eskobilla nazazu piska bat eta geigo bear ez det.



## Modista bat

Modako txapel bat nai nuke.  
 Ikusi ditzagun zer moda berri dauzkatzun.  
 Txapel itxura guzietakoak emen dauzka.  
 Emen dauka terziopelo beltzeko bat; aizkeneko modakoa da.  
 Txapel oien itxura txit txikia da.  
 Txapel oiek aldamenetatik irtenegiak daude.  
 Moda da, andrea.  
 Txapel raso zurizkoak beti usatzen dira?  
 Bai andre, baña krespoi zuriak geiago.  
 Italiako lasto errozeta zuriz garnezeituta dagoen txapel ori ekatu.  
 Au probatzen utzi bizat.  
 Ez nekatu, etzait gustatzen.  
 Itxura laburra ta egalak estuak dauzka.  
 Txapel zuri luma duna artzen det.  
 Zeñ ederki datorkion!  
 Itxura luzea txapelai egiteak irauten du?  
 Batzuek ikusten dira.  
 Ingelesan itxurakoak asten dira berriz agertzen.  
 Gorruak ere ikusi nai nituzke.  
 Loraz edo errozetaz garnezituak nai ditu?  
 Orain lorarik ez da usatzen.  
 Barka bizat, andre; oraindikan asko ikusten dira.  
 Lumaen boga orantzen da.  
 Enkajezko belo ederrak ikusi nai ditu?  
 Nik Bruselazko enkaje txit ederrezkoak dauzkat.  
 Emen dauzka sedaz bordatutako mantal politak, pañuelo gaiñaña-  
 ko ederrak.  
 Ridikuluak eta bolsak ikusi nai nituzke.  
 Emen daude txit politak.  
 Abanikurik edo goanterik ez du bear?  
 Bordatzeko seda bear det.  
 Erakutsi egirazu zer kolorezkoak dauzkatzun.  
 Kolore au txit eroria da.  
 Besterik ez daukazu?  
 Au ongi etorriko zait.  
 Ezlejitu dedan guzia gaur bidaltzez mesede egirazu.

## Erlojugille bat

Erlojugillearen denda ori da; sar gaitezen.  
 Nai nuke mai gañerako erloju bat; erloju bat; errepetizioko erloju  
 bat.  
 Oraindik badauzkat asko.  
 Berorren gustora ezlejitu daike.  
 Jinebrako fabrika onenetako bateko zilindroa emen dauka.  
 Txikiagi da; emakume erlojua da.  
 Barka bizat, txikiak erabiltzeko usarioa da.  
 Ez da inport; ekatzu bestea.  
 Txit eslezio ederra egin du; errepetizio rubi gañean paratua da.  
 Probatzeko utzi dezakiot; bi edo iru urtero erantzuten diodala.  
 Kondizio orrekin baizik ez dizut artuko.  
 Gusto andiz uzten diot.  
 Eta; zenbat balio du?  
 Jesus au garizti!  
 Erloju on bat ez da beñere garizti.  
 Pozik geldituko zera berarekin.  
 Prezioa ezin jatxi dezakezun ezkerro, ondo ez badabill artzeko agiri  
 bat iskribatu egirazu.  
 Erreziboan iskribatuko det.  
 Nola erloju berria dan utzi bizat egun batzuetan arreglatzen.  
 Noiz egongo da pronto?  
 Amabost egun barru.  
 Utzi nai badit señaileak, eraman eraziko det berorren etxera.  
 Egirazu bada mesede beste erloju bat bitartean emateaz.  
 Beutzo au; ez da polita; baña ondo dabill.  
 Emen dakarkizut bat, zein konpondu dezazun nai nuke.  
 Gisa txarreen dago.  
 Artara jartzera nua, baña lan asko dauka.  
 Nai didazu trukatu one gatik?  
 Zergatik ez?  
 Gañera zenbat nai dezu?  
 Amar lau ezkutuko, 800 erreal.  
 Geiegi da; uzten diot trukatzeari; egingo didazu mesede nerea arre-  
 glatu ta garbitzeaz. On askoa dago ta oraindik serbi dezakit.  
 Amabost egun batzuek barru etorri bedi emendik eta bere erlojua  
 pronto egongo da.



## Erloju bat

Zer ordu dan badakizu?  
 Fijo ezin esan dezakizut.  
 Zure erlojuri begira zaiozu.  
 Ondo ez dabill.  
 Orduan ez dago.  
 Desarreglatua dago.  
 Aurreratu egiten da.  
 Atzeratu egiten da.  
 Egunean ordu laurden bat aurreratzen da.  
 Egunero ordu erdi atzeratzen da.  
 Zerbait desarreglaturik dauka.  
 Zerbait dauka puskaturik.  
 Katea autsi dala uste det.  
 Erresorte aundia autsi da.  
 Konpontzera eman bear da.  
 Konponduerazi egizu.  
 Erlojeroaren etxera bidalduko det.  
 Eta zurea ongi dabill?  
 Zurean zer ordu da?  
 Kuerda eman ez diot.  
 Kuerda ematea aztu egin zait.  
 Gelditua dago.  
 Geienez ongi dabill; txit ongi.  
 Zure erlojua zilindrozkoa da?  
 Ez dakit.  
 Rubien gañean jarria dago.  
 Orratz bat autzia daukazu.  
 Erlojua atso erori zitzetan eta kristala autsi zan.  
 Zure erlojuaren giltza ekatzu.  
 Ezin dezaket; kateari itsatsia dago.

## Optiko bat

Atso goizean erosi nizun anteojuak trukatzeari nuke.  
 Ongi ez al datorkio?  
 Ez; aurrena ongi samar ikusten nuen berakin; baña orain begietan  
 bisoak egiten dizkidate.  
 Berorrek eslejitu zituen kristalak didalarik; emen daude beste  
 batzuek.  
 Oiek ez dituzte gauzak anditzen bear aña.  
 Oiek dira onak bista laburrarentzat.  
 Nik bista ona daukat.  
 Oiek artuko ditut. Anteoju, kataleju bat ere nai nuke teatrorako.  
 Txit ederra edo erregulara (sic) nai du?  
 Kontxazko bat ekatzu.  
 Aizkeneko moda da.  
 Tafiletezkaja bat ekatzu.  
 Beste egun batean biurtuko naiz lente ta optikako gauza batzuek  
 eslejitzen.  
 Berorren agintera gañgañekoak dauzkat.





## Joiero bat

Eraztun batzuek erakutsi nai didazu?  
 Arri fiñan gañean daude oiek?  
 Eraztun onek zenbat balio du?  
 Diamantezko aderezo onek zenbat balio du?  
 Engastatzea txit gaitza da.  
 Diamante oiek txit diztiazten dute.  
 Diamante onek brillo andia dauka.  
 Txit ur argizko diamatea da.  
 Eraztun au neretzat zabalegi da.  
 Beste batzuek erakutzi egirazu.  
 Au ongi datorkit.  
 Engaste sendoa dauka?  
 Zenbat nai dezu bera gatik?  
 Lenbizikoa naiago det.  
 Txikiago jarri daikezu?  
 Txit erraz eta engasteari kalterik egin gabe.  
 Titararik badaukazu?  
 Emen daude urrezko ta zillarrezkoak.  
 Kaja bat idukitzea nai nuke.  
 Zifra bat egitea nai nuke.  
 Zer zifra nai du?  
 Urrezko katee bat bear nuke.  
 Nerea ez da orain modakoa.  
 Nerea gatik zenbat emango didazu?  
 Pisatzera noa.  
 Sillu bat ere bear det.  
 Emen dauzka atzeneko modako silluak.  
 Oiek biak artuko ditut.  
 Nai zera enkargatu beretan nere zifra ta armak eginerazitzea?  
 Bai jauna, gure grabadore alaienari emango diozkat.  
 Kontxazko kaja eta ortzak garbitzeko estutxerik badaukazu?  
 Belarrikoak erakutzi egirazu.  
 Emen dauzka delikadeza andienaz egindako batzuek.  
 Orratz onek zenbat balio du?  
 Brazelete ta brotze oriek erakusteaz mesede egiguzu.

Perlazko kollar ori ikusi dezagun.  
 Pebete bat, fraskito bat erakutsi egirazu.  
 Jostorrazontzi esmaltatu bat nai nuke.  
 Utzi bizat urrezko lanerako kajatxo au erakutsi dizaiodan.  
 Begira beza zer dibujo ederra, zer lan miragarria.



## Liburugille bat

Zure liburuen arrazoi bat badezu?  
 Emen dauka gaur bertan egiña.  
 Bertan billatuko ditu nere etxeko liburuak eta beste erreinutakoak.  
 Erregutzen dizut erakutsi didazula obra berrienak gure izkuntzan.  
 Emen dauzka Urliaren itz neurtuak; onelakoren biajeak; mai orren gañean daude ogeien bat ipui makiña bat autoreenak.  
 Ipuirik nai ez det; ikusi ditzagun itz neurtu oiek.  
 Alakoren kondairaren aurreneko zatia ere badaukat; baita zeraren komediak ere.  
 Berorren gogoko ezer billatzen du?  
 Filosofiko obra bat bakarra ere ez det aurkitzen.  
 Barkabizat, jauna; listaren azkenean daude zienziak.  
 Bufon ezkatu dizudana badaukazu?  
 Ez daukat 18.an moldezkiadua baizik.  
 Figura argiratuaz ederturik dago.  
 Egirazu mesede erakusteaz.  
 Itxura zerbait gustatzen zait.  
 Enkuadernatua nai nuke.  
 Zer gisako enkuadernazioa nai luke?  
 Txal narruz enkuadernatua, edo badanaz, jazpeatua ta ertz urrezko-az.  
 Ongi da; alegiña egingo det zati oiek berorrek deseatzten dituen bezela egiteaz.  
 Rusiako narruz egindako enkuadernazio polit batzuek erakutzi egi-razu.  
 Orain daukagun ederrena ori da.  
 Mota au txit gustatzen zait.  
 Kolore guzien prezioa berdiña da?  
 Berdin berdiña; koloreak ez du gora beratzen balioa.  
 Modu orretan tafilete berdez naiena det.  
 Zerbait geiago bear du?  
 Nai nuke alako...bat.  
 Lanzezko bat dauket eta ez da garizti.  
 Berri bat naiago det.  
 Ezin diteke zeren guztiak aitu diran.

Ez da berriz moldetegitzeko asmorik?  
 Ez det uste egingo dala.  
 Liburu txit bearra da.  
 Engañatzen nintzan; moldetegan dago; baña ez dakit noiz bukatu-ko dan.  
 Orduan naiogo (sic) det zuk daukezunaren jabe egiñ.  
 Zenbat nai dezu bera gatik?  
 Emango diot berreun errealean.  
 Berririk kozta zan baño geiago da.  
 Ain gutxi gelditu dira eze egunero goratzen ari da.  
 Merkeago ezin eman daikezu?  
 Ez jauna; ondo merkea da.  
 Apartatu ezazu eta bidaldu egirazu kontuarekin, eta pagatuko diot eramaten duenari.



## Oial tratari bat

Oiala erosi nai nuke.  
 Zer gisatako oiala nai du?  
 Emen dauzka oial fiñen muestrak.  
 Nai du oial kolore nabar duna?  
 Ez, kolore batekoa naiago det.  
 Zer preziotakoa nai du?  
 Erakutsi egirazu onanekoa.  
 Au da daukezun fiñena?  
 Bai jauna, illean tintatua dago.  
 Kolore ori etzait gustatzen.  
 Beste batzuek erakutsi egirazu.  
 Kolore au laister galduko du.  
 Barka bizat, asko iraungo du.  
 Oial onen eoera esamiña beza; oberik ez liteke aurkitu.  
 Oial au meagi da.  
 Emen dauka beste pieza bat.  
 Lasaia da txit.  
 Geiegi maneatua ote dagoen nago.  
 Itza ematen diot eze lustrea kentzean irabaziko duela.  
 Zuzaz fiatzen naiz.  
 Kana zenbaten saltzen dezu?  
 Eun ta ogei errealean.  
 Nola! Kana sei eskutu lodian? txit gora irizten diot.  
 Aizkeneko prezioa da?  
 Erregatatzea etzait gustatzen.  
 Larogeita amar errealean utzi dezakezu?  
 Ez jauna, galduko nuke.  
 Erdiratu dezagun diferentzia; emango diot eun ta zortzi errealean.  
 Bere balioan darama; parrokiario bat ez galtzea gatik egiten det.  
 Lau kana ebaki egirazu.  
 Orain txaleko batentzat tela bear det.  
 Emen dauka kolore guzietakoa.  
 Au argiegia da.  
 Mantxakorra ez dan bat eta garbitu al ditekena nai det.

Dibujo au gustatzen zait, bañan bildur naiz kolorea galduko ote duen; tinta ona ez daukela.

Egon bedi lasai ez duela galduko; ni fiadore naiz.

Ezer geiago bear du?

Raso, tafetan, katxemira eta seda mota guzietako surtidu on bat daukat.

Orain orain bezela ez det geiago bear; paketea bidaldu egirazu errezioboarekin.



## Eun saltzalle bat

Euna, erakutsi nai didazu?  
 Zer kalidadekoa nai du?  
 Onanekoa; alkandorak egiteko da.  
 Emen dauzka makiña bat pieza.  
 Onek zenbat balio du?  
 Aizkena ogeita lau erreal.  
 Prezio orretarako txit fiña ez deritzat.  
 Au naiago nuke.  
 Holandako euna da; gorago kostako zaió.  
 Zenbat nai dezu bera gatik?  
 Emen dauka pieza bat, kana ogei ta amabi errealean, eta beste bat berrogei ta zortzian.  
 Lasaitxoá da; ez dago tupitua bear aiña.  
 Emen dauka beste bat geiágo iraungo duena.  
 Emendik ebaki egirazu amar alkandorentzat ainbat.  
 Guarniziorik bear du?  
 Bai, erakutsi egirazu batista petxerantzat.  
 Batista au ongi datorkio eun ari.  
 Orain nai nuke maindirak egiteko eun lodiágoa.  
 Emen dauka non esleitu.  
 Utzi beit mairako txit eun ona erakusten.  
 Emen dauzka mantel txit ederrak.  
 Serbilleta oien dibujua txit berria da.  
 Lan gañgañekoa dauka.  
 Bañan bear ez det.  
 Naiago ditut eta ekatzu batistazko pañueloak.  
 Seguru nago eze gustatuko zaiola erakustera noanak.  
 Bi dozena artuko ditut.  
 Zuk ez dauzkatzu jenero onak besterik eta irabazi baizik ez daikezu.  
 Bere konfiantzaz ondrazten nauten jendeai alegiña egiten det gusto ematea.

## Sastre bat

Berorren sastreak itz egin nai dio.  
 Datorrela aurrera.  
 Bear bezela zatoz, kasaka bat nai nuke.  
 Kasaka baten neurria artzeko deitu erazi dizut.  
 Ongi da; neurria artzera ninjoakio.  
 Nola egitera nai du?  
 Orain usatzen diran bezela egizu.  
 Txaleko bat eta pantaloí bat nai ditu?  
 Bai, soñeko oso batentzat oiala daukat.  
 Muestrak nerekin neuzkan.  
 Ikusi dezagun; lebita bat eslejitu nai nuke.  
 Mota guzieren muestrak dakazkit; berorri geiena gustatzen zaion bat eslejitu dezake, jauna.  
 Berdeak txit ongi emango lioke.  
 Zeru koloreko urdiñ au gustatzen zait zerbait.  
 Baña laister galtzen dan kolorea da.  
 Au? barka bizat; nik erantzuten diot.  
 Zer motako botoiak nai ditu?  
 Gai bereko botoiak, ala sedazkoak nai ditu?  
 Naiago ditut botoi doratuak kasakarentzat eta sedazkoak txalekoa-  
 rentzat.  
 Pantaloiak nai ditu txit goitik?  
 Ez txit goitik eta ez txit beetik ere.  
 Zabal edo ezta nai ditu?  
 Zer bait estutxo eta beetik irikiko diozu piska bat.  
 Nai du trabillak justu jartzea?  
 Galdetu bearrik ez dezu.  
 Beste txaleko bat bear det.  
 Sedazkoa edo kasimirazkoa nai du?  
 Kasimirazkoa baldin badezu, senzilloa.  
 Utzi bizat esaten kasimira dobleak askoz geiágo irauten duela.  
 Ongi da, korriente; bañan ez aztu larunbat goizerako guzia bear dedala.  
 Guzia idukiko du larunbatean goizeko zortziretako.  
 Berorren kasaka dakarte, jauna.



Eta pantaloia ta txaleko biak?  
 Guztia emen dago.  
 Ongi larritzen adi nintzan.  
 Atzegin det itza bete didazunean.  
 Bederatzietan bear det.  
 Zortzirak baizik ez dira.  
 Ez dauka aserratzeko notiborik.  
 Ikusi dezagun kasaka nola dijoan.  
 Probatu egirazu.  
 Txit ederki datorchio.  
 Dauka eziñ obeto.  
 Gorputzean egoki dagokio.  
 Maukak zabalegi ez daude?  
 Orañ orrela eramaten dira.  
 Estuegi dagokit.  
 Sorbaldapetan estutzen naute.  
 Gorputzean luzetxo iduritzen zait.  
 Orrela usatzen da.  
 Aldamenetan zimurrak egiten dirate.  
 Ori aurreneko momentuan bakarrik da.  
 Ordu bi barru ori igaroko da.  
 Obeto jantzirik sekula etzan egongo.  
 Nekeza da neurri obean egitea.  
 Pantaloia ongi dago, baña txaleko au irikiagi dago.  
 Bestea naiz laburra, geiago gustatzen zait.  
 Zuek sastreok sekula ez dezute arkitzen zuen lanetan faltarik.  
 Itzuli egirazu laister.  
 Kapa bat ere bearko det.  
 Muestra berrienak ekarriko ditut.

## Jostun bat

Deitu erazi dit; berorrek etorri erazi dit, andre?  
 Bai; enbajadorearen dantzara nua ostegunean, eta blondazko soñe-  
 ko bat bolanteakin eta raso zurizko bisoakin bear det.  
 Nola egiten dira gorputza ta maukak?  
 Nai badu sinistu; esleji bitza gorputza griega gisara eta maukak labu-  
 rrak gona bezela bolanteakin.  
 Nai du ere raso errosa kolorezko zisneakin guarnezitutako kapa?  
 Orregatik zenbat eramango didazu?  
 Lareun erreal geiena.  
 Egiazki asko da, batez ere estazioaren bukaeran; baña arreglatu  
 ezazu aldan modurik onenean.  
 Bearko nituzke ere orrazteko bi oial goizetarako eta traje batzuek  
 udaberrirako.  
 Egin daizkiot muselina lanazko bi oialak, Napolesko gro ur dunez  
 traje bat eta puplin listatutako soñ bat goizetarako.  
 Beste gauzaren bat nai badu nere almazenean esleji dezake; an billa-  
 tuko du modakoena.  
 Egin daikezu Napolesko grozko soñaren gorputza adornatzeko riza-  
 du bat sorbaldetan eta maukak piska bat zabalak zerbaitez adornaturik.  
 Oialak egirazu pieza batean aurretik irikiak.  
 Goizetako soñaren gorputza egingo det biotzaren itxuran gurutzat-  
 tua ta lisoa, gonaren luzeeran errozetakin, goian zabal ta bean estu diran  
 mauka zearkatuak, taldetik taldera botoiak.  
 Goitik jarriko det esklabina bat mokoaz, orratz batez aurretik itsas-  
 teko moduan.  
 Ederkiro da txit.  
 Esklabina ori lisua edo guarnezitua eramaten da?  
 Guarnizio aundi bat iduki bear du; bisitarako traje senzillo bat da.  
 Deseatzen ditu azkeneko modako kamisolin enkajez guarnezitutako  
 kuello bordatuakin, jenero igoaleko bueloak, edo goizerako txano  
 Ingalaterrako edo Bruselasko puntuan guarnezituak?  
 Surtidu aundi bat daukagu.  
 Ori guztia ekarri egirazu laister.  
 Bearbada beste zerbait geiago eskatu bearko dizut.  
 Nizaz kontentu geldituko da.



## Tapizero tresna saltzalea

Bizitza bat amueblatzeko tresnak erosi edo alkilatu nai nituzke.  
 Badaukat zerekin zuri pagatu.  
 Lujozko muebleak nai ditu?  
 Nai nituzke mueble gusto oneko sendoak, ta ez txit gariztiak.  
 Nere almazenera juateko nekea artu nai badu, an arkituko du deseazten duena.  
 Sala aurrerako bear dira terziopeloz estaldutako intxaur zurezko aulkiak; kolore gorria geiena usatzen da.  
 Berdea naiago nuke.  
 Emen dauka kaobazko silla surtidu bat jantokirako, eta nai aiña luzatu litekeen mai eder bat zur berekoa.  
 Emen daude maiaren serbizioarako bear dana paratzeko apalak.  
 Atze biribilla daukaten silla oiek etzaizkit gustatzen.  
 An dauzka itxura obekoak, baña ez dira oiek bezin sendoak.  
 Apal oiek biatik zenbat nai dezu?  
 Txit garizti da.  
 Ondo esamiña bitza; txit ondo izten dira; primorez egiñak daude.  
 Arrosa zurezko muebleak deseatzen ditut salarako: raso urdiñez estaldutako sofa, silloiak eta poltroi bat.  
 Alkobarako komoda bat, sekretari bat, bi silloi eta lau edo sei silla zur pintatutazkoak.  
 Burnizko oea urrez adornatua.  
 Egirazu mesede alfonbraren muestrak erakustez.  
 Nai du alfonbradu berdiña gela guztietarako?  
 Ez, bariedadea gustatzen zait.  
 Bear nituzke ere izpilluak, kristalezko araña eder bat.  
 Aditu beza, begiratu bat eman bear diot bizitzari; izpilluan luzetasunerako tximinien neurria artuko det eta leioena kortiñantzat. Esango diot guztien prezioa, muebleena, kortiñena eta adorno mota guztiena.  
 Denbora askokoa izango da.  
 Mueblajea prestatzen dan bitartean alkilatuko diot bear duen guztia.  
 Baldin beorren bizitza nai badu adornatu bear dan bezela, muebleak bera-riaz egin bear dira.

## Kotxegille bat

Kotxerik badaukazu saltzeko?  
 Karruaje on bat eta ederra nai nuke.  
 Emen dauket bat aizkeneko modakoa ingeles modura.  
 Ingeles modura? Itxuraren gañean izan dedilla ordu onean, baña sendotasunean, badauzkat notiboak dudatzeko.  
 Nai du karretela ingelez bat? Badaukat bat; baitaere berlina bat eta lanzezko faeton bat.  
 Arrigarria da kontinentean aurkitzea karruaje ingelez bat guzizkiro berria, zeren deretxo andiak pagatzen dituzten.  
 Bideko kotxe bat nai nuke lau gurrillekoa.  
 Sendoa nai det eta itxura politekoa.  
 Ementxe dauka bada bear duena.  
 Au da berorrek deseatzen duena bezelakoa, ariña ta egokia.  
 Zinzilik ongi paratua dago ta txit ederki dabill.  
 Konfianza guziakin artu dezake.  
 Gurrillan sendotasunez erantzuten didazu?  
 Bai orixe.  
 Nolata uzte gabeko agertukizunen bat ez datorkion obligatzen naiz sei illabetean mudatzera gurpillak, lantza edo beste karrujeko edozein zati falta arkitzen zaiona.  
 Noizik beñ gurpillak untatu erazi ezkerro, karruaje onekin buelta eman daikio Europa guziari.  
 Muelleak eta ardatza dira sendotasun gañgañekoak.  
 Trena ez deritzat txit sendoa.  
 Barka bizat; zurak daude bere sazoian; eta burniak dira ederrenak.  
 Karruaje oberik ez liteke aurkitu.  
 Iriki beza atea.  
 Oi! Au nekeza dago!  
 Txit ederki izten da.  
 Etribua txit medarra da.  
 Moda da.  
 Barrena ongi esamiña beza.  
 Forrua oialik fiñanekoa da.  
 Naiago nuke tafiletez forratua balego.  
 Galoiak sedazko eta lanazkoak dira.



Txit ederki forratua dago.  
 Almuadoiak muellezkoak dira eta zurdaz beteak.  
 Bolsak, kristalak, kortiñak, farolak; guztia da txit ona.  
 Toki ezkutatu asko ere daude.  
 Txapel ta paraguasentzat badaude ugalak.  
 Zaldiak erazteko prest dago.  
 Eta baka non dago?  
 Almazenean dago atzetik jarri bear dan kofre batekin.  
 Biajerako ta paseorako serbi dezaken karruajea da.  
 Kolorea etzait gustatzen.  
 Barniza ez da zartatuko.  
 Zer kolore nai luke?  
 Berde illuna nere armakin eta nere izeneko letrak.  
 Zerbait gerturatzten bagera bere preziora, berorren gustora berriz  
 pintatu eraziko det.  
 Zenbat nai dezu bera gatik?  
 Txit garesti da.  
 Damu det, baña gutxiagoan ezin eman nezake.  
 Badaukat lantzezko bat merkego emango diodana.  
 Txit gutxi da.  
 Ez dago erortzeko bildurrik.  
 Anziñako bat da.  
 Ardit bat ez nuke emango bera gatik.  
 Artuko det lenbizikoa; baña truekean emango dizut Millanen erosi  
 nuen karretela bat zillarrez adornatutako tresnakin, zergatik ongi ez  
 datozkien kotxe onen doratuai.  
 Egin bizat mesede berorren señaik emateaz eta esateaz zer ordutan  
 joango naizen berorren etxera. Nere interesak asko galtzen ez badute  
 egingo det berorrek nai duena.

## Bankero bat

Zer ofrezitzen zaio, jauna?  
 Napolesko berorren korresponsal batek berorren kontra emandako  
 letra bat dakarkiot ganbiatzeko.  
 Etxe txit maitagarria da, zeñekin egiten ditudan negozio asko.  
 Letra agertzean pagatzekoa da.  
 Bankuko billeteakin pagatzera nijoakio berealaxe.  
 Zati bat urretan pagatuko ziñaket?  
 Ganbioa gutxitu dezake.  
 Igoal zait; Endosatua dago?  
 Bai jauna, nere naiera endosatua dago.  
 Ongi da; emen dauzka bi Bankuko billete bi millana errealekoak, bat  
 lau millakoa, ogei larogei errealeko eta gañerakoa zillarretan ta koartotan.  
 Zenbat jatxi du ganbioa gatik?  
 Iru erreal urre diru bakoitza gatik.  
 Baña uste det zerbait falta dala.  
 Iru erreal baizik ez zakua gatik.  
 Kontua zuzen dago; baña urrezko bi moneda oiezaz duda bat dau-  
 kat onak diran edo ez; baten markak ez dira ezagun.  
 Nai badu beste bi emango diozkat.  
 Pisu bat badu? Au pisa dezagun.  
 Bost ale falta zaizka.  
 Emen dago bat ona.  
 Esan liteke au arrazpatu egin dutela; kolorean itxurara edozeñek  
 uzteko luke falsoa dala, edo liga asko daukela.  
 Ez dago arrazpatua.  
 Kordontzillua ongi konserbatua dauka.  
 Ur fuertez ikusi dezagun.  
 Urre txit garbia da.  
 Londresko berorren korresponsalaren beste letra bat badaukat, iku-  
 sita amabost egun barru pagatzeko.  
 Nai du azeptatu?  
 Ezin dezaket; ez det artu abisoko karta.  
 Protestatu egin bearko det.  
 Erregutzen diot egun batzuetan itxooteko; egun batetik bestera eto-  
 rriko da nere korresponsalaren karta.



Orduan itxoongo det ez atsekaberik ematea gatik.  
 Bildur gabe badagoke; gizon txit abonatua da.  
 Abisoa artu bezin laister pagatuko diot ganbioa jatxita.  
 Bere balioa gusto aundiz artuko det Milanerako letra batean ogei ta  
 amar egun pean plazako gambiora.  
 Orren gañean alkar adituko degu.  
 Iru edo lau egun barru biurtu daiteke.  
 Ez det faltatuko, baña zenbat eramango dit ganbioa gatik?  
 Ori plazoan da diru gutxian egongo da.

## Mediku ta gaxo bat

Zer dezu?  
 Erreuma daukat.  
 Zintzurrean miñ det.  
 Ezurretako miña daukat.  
 Koliko bat daukat.  
 Buruko miñ andia daukat.  
 Gota daukat.  
 Zañetako ikara eta biotzeko palpitazioak dauzkat.  
 Jateko gogorik badaukazu?  
 Ez jauna, beti gorako galea daukat.  
 Ikusi miñgaña.  
 Egarririk badaukazu?  
 Bai, egarria badaukat.  
 Aoa garratsa daukazu?  
 Esnatzen naizenean beti garratsa daukat.  
 Ibiltzen zera?  
 Txit gitxi irtetzen naiz.  
 Iru edo lau orduko paseo bat ematen det egunero.  
 Ondo lo egiten dezu?  
 Ez, begirik ez det izten.  
 Sabeletik irteten zera?  
 Denbora asko da miñ ori daukazula?  
 Bost edo sei egun dira.  
 Utzi egirazu pulsoa artzen.  
 Kalentura daukazu.  
 Sangri bat bear dezu.  
 Dozena bat izain jarri bear dituzu...  
 Oñetako bañu batek ez dizu gaitzik egingo.  
 Errezeta jartzera noa.  
 Botikara bidaldu bear da.  
 Artzera noan medeziña zertzaz maneaten da?  
 Ruibarboaz, manaz, &.  
 Medeziña ori artu dezaket baskal ondoan?  
 Ez, baraurik artuko dezu.  
 Egarrria daukadanean zer edango det?





Edan ezazu... tisana.  
 Zer jan dezaket?  
 Gaur ezer ez; biar ikusiko degu.  
 Erremedio guziak baño geiago balio dute barauak eta soseguak.

## Bizitza bat artzeko

Alkilatzeko bizitzarik badauka?  
 Esan dirate berorrek bazeuzkela bizitzak alkilatzeo.  
 Bai jauna, batzuk badauzkat.  
 Zer bizitza nai du?  
 Bizitza amueblatua edo amueblatu gabea nai du?  
 Bizitza amueblatu bat nai det.  
 Berorrek nai duena daukat.  
 Lenbizikoa ta bigarrena utzik daude.  
 Biak edo banaka alkilatuko ditut.  
 Bietako bat askoko det.  
 Berorrek eslejituko du.  
 Bearbada biak artuko ditut.  
 Bi alkoba, sala bat eta sukalde bat bear ditut.  
 Jarri daizkiot.  
 Nai du mesede egin berorren bizitzak erakustez?  
 Gusto aundiz.  
 Aurrera sartu bedi.  
 Jarraitu bizat.  
 Bizitzak erakustera nijoakio.  
 Emendik nai badu.  
 Au da aurreneko bizitza.  
 Zazpi zati dauzka: sala aurre bat, sala bat, jantoki bat, bi alkoba ta bi gabinetetxo.  
 Pieza on askoak dira.  
 Badago beste gelarik bizitza oni dagozkionik?  
 Morroiantzat gela bat eta sukalde bat.  
 Eta zenbat kostatzen da?  
 Zenbat nai dezu guzia gatik?  
 Illean irureun peseta.  
 Aizkena da?  
 Bai jauna.  
 Txit gariztia da.  
 Ori diru asko da.  
 Geienean astean larogei pesetako arrazoian alkilatzen det.  
 Illeko artzen badu zerbait gutxiagoan utziko diot.



Ikusten du bizitza txit garbia dagoena.  
 Bistak ere txit ederrak dakazki.  
 Bizitza ederra da, baña prezioak ikaratzen nau.  
 Geiegikoa da.  
 Usten dit bigarrena ikusten?  
 Berorrek gustu duen bezela.  
 Uste det geiago gustatuko zaidala.  
 Diferentzi andia dago?  
 Bai jauna, baña ez dago au bezin ederki amueblatua.  
 alea au da.  
 Ez da aundia, baña neretzat egokia.  
 Ikusten du nola dagoen bear dan guztia eta muebleak ere txit onak dirala.  
 Kaobazkoak dira mueble guztiak.  
 Emen dauzka bi silloi, sei silla, alfonbra berri bat eta kortiña txit garbiak.  
 Gañera daude armarioak tximinian alde bietatik.  
 Alkoba erakutsi bizat.  
 Ikusi dezagun oe ona dan, zeren ori da gauzarik onena.  
 Oberik ezin izan.  
 Gela kale aldera dago?  
 Ez jauna, jardiñ aldera dago.  
 Askoz obe; ala kotxean otzak ez naute esnatuko.  
 Beste alkoba ikusi nai du?  
 Uste det oea ona dala.  
 Zenbat nai du bizitza one gatik?  
 Illean eun peseta, baña gutxiagoan ezin alkila dezaket.  
 Begira beza, barrio au errian dan onanetakoa da eta zeñean dirala etxeak gariztienak.  
 Tokia da ederra txit.  
 Ongi bada, emango diozkat eun pesetak.  
 Baña bear ditut bodega bat eta egurra ta ikatza gordetzeko lekuak.  
 Ori ez da zer esan.  
 Erropa zuria emango dit.  
 Bai segurki.  
 Zortzitik zortzi egunera aldatuko zaizka maindirak eta egunero emango zaizka bi eskuoial, zabau bat eta serbilleta.  
 Korredoreko ezkerreko aldean daude komunak ingeles gisara.  
 Begira, etxean jan eznezake?

Bai jauna.  
 Emen arkituko du mai biribilla ongi serbitua eta jende eslejitua.  
 Astean zenbat eramaten du?  
 Urtean zortzireun pesetako arrazoian.  
 Zenbana irteten da?  
 Asteko amabost peseta.  
 Bigartik asiko naiz.  
 Biak gatik, bizitza ta janagatik, zenbat eramaten du?  
 Orantxe esan diot, merkeago ezin izan.  
 Ez dago bada geiago zer itz egiñik.  
 Noiz bizitzaren jabe egiteko asmoa du?  
 Gaur gabean etorriko naiz lotara.  
 Egizu goiztxo guztia pronto egoteko modua.  
 Ongi da.  
 Nere aginteak ematera noa.  
 Nai duenean etorri daiteke.



## Morroi bat ajustatzeko

Ostatuko nagusia gandik jakin det kamarero bat bear duela.  
 Bai, Ingalaterran serbitu duen kamarero bat bear det.  
 Ni Ingalaterran ez naiz egon beñere, baña serbitu ditut kontinen-  
 tean ingeles batzuek.  
 Serbitzea txit ondo esagutzen det.  
 Esairazu zer dakizun egiten.  
 Nik dakit etxeko lanak egiten, orraztzen eta bizarra kentzen.  
 Badakit maia serbitzen, eta bear balitz baita sekretarioaren lanak egi-  
 ten.  
 Nongoa zera?  
 Franzesa.  
 Eskondua zera?  
 Ez jauna.  
 Bai jauna, nere ematea Alemanian dago.  
 Gisatzen badakizu?  
 Bai jauna, eta badakit makiñabat erreposterian.  
 Lenago biajatu dezu?  
 Askotan biajatu det Franziatik, Italiatik eta Alemaniatic.  
 Alemanez, italianoz itz egiten dezu?  
 Entenditzen det eta entendierazi daiket.  
 Esagutzen ditut Europako fondarik onenak, paseoak, neurriak eta  
 monedak.  
 Denbora asko da enpleo bage zaudela?  
 Bi illabete.  
 Bitartean zer egiten dezu?  
 Egunka serbitzen det.  
 Zergatik despatxatu zaituzte?  
 Zergatik utzi zenduen zure nagusia?  
 Nere nagusiak despatxatu ninduen, zeren bere galduera batzuek  
 obligatu zuten gaztuak gutxitzera.  
 Denbora asko egon ziñan beraz?  
 Urte bi ta erdi.  
 Emen dauka bere agiria; au asko ez bada, informeak eskatu bizaio-  
 ke...  
 Zer salario zenduken?

Zer salario nai dezu?  
 Urtean seireun peseta, etxea ta janaria.  
 Ibiltzeko nola dan illean larogei peseta, etxea ta janaria.  
 Geiegi da; nik orrenbeste ez det ematen.  
 Barka bizat, baña kondizio oiek moderatuak dira. Kamarero bat ez  
 da nausiaren soñekoa gastatzen duen lakaio bat bezela.  
 Ongi jastea asko kostatzen da.  
 Ongi da, emango dizut eskatzen dezuna.  
 Baña adierazitzen dizut kontuzkoa izateko eta ez lagun gaiztoakin  
 ibiltzeko.  
 Uste det nizaz kontentu izango dala.  
 Ikusiko degu zure itza gordetzen dezun.  
 Biar biurtu zaite ta errespusta erabakikoa emango dizut.  
 Guztia pronto idukizu zeren bereala bidean jartzea pensatzen det.



## Neskame bat artzeko

Txit gaztea iduritzen zaitzat.  
 Zenbat urte dituzu?  
 Ogei ta bost urte.  
 Denbora asko da serbitzen dezula?  
 Amaseirekin asi nintzan.  
 Aizkeneko etxeko andreakin denbora askoan egon zera?  
 Lau urte gertu.  
 Zergatik atera ziñan?  
 Zergatik utzi zenduen etxe ori?  
 Zergatik erbestera joan nai eznuen nere nausiakin.  
 Zergatik salario gutxi ematen ziran.  
 Zergatik aurrak lan asko ematen ziraten.  
 Orrela, aurrak etzaizkitzu gustatzen?  
 Onak diranean etzaizkit disgustatzen, andre.  
 Badakizu orrastzen eta erropa fiña garbitzen?  
 Josten badakizu?  
 Bai andre; soñak egiten ere badakit. Serbitzera irten baño leen egon  
 nintzan jostun batekin.  
 Eskribitzen badakizu?  
 Badakit eskribitzen eta kontatzen.  
 Gisatzen badakizu?  
 Bai Andre; baitaere erreposterian ingelesan gisara.  
 Aizkeneko etxeko andrearen agiri bat badaukazu?  
 Ona emen.  
 Ikusi dezagun.  
 Badezu errespetoko persona bat zu gatik informeak emango ditue-  
 nik?  
 Eskatu dizaioke...  
 Zer salario nai dezu?  
 Lengo etxeko andreak ematen ziran iruregun peseta; baño orain nai  
 nituzke irureun eta berrogei ta amar.  
 Geiegi da; besteak ematen zizuna emango dizut.  
 Kontsideratu beza gutxi dirala irureun peseta.  
 Begirazu; asi gaitezen irureunekin, eta kontentu banaiz emango  
 dizut irureun eta berrogei ta amar.

Garbitasuna rekomendatzen dizut.  
 Bisitarik ere ez det nai etxean.  
 Illean bi aldiz irten zaitezke etxetik.  
 Porterarekin eta beste mirabeakin txismerik nai ez det.  
 Kondizio oiek akomodatzen bazatzu artzen zaitut nere serbizioan.



## Zaldi bat erosteko

Zaldi bat erosi nai nuke.  
 Saltzeko zaldi onak dauzketzu?  
 Kastarik onenetakoak dauzkat.  
 Nere ikulluak zaldi ederrez beterik daude.  
 Egin beza mesede nerekin zalditegian sartzea, eta bere gustora esle-  
 jituko du.  
 Nai du arabe andaluziko zaldi bat?  
 Anka onetako zaldi ingeles bat nai nuke.  
 Nai det azpirako, tirozko zaldi bat.  
 Esamiñazu baio ori.  
 Etzait gustatzen.  
 Txit argala dago.  
 Txikia da.  
 Begi bakarra da.  
 Gurdiko zaldi bat dirudi.  
 Jamelgo bat da.  
 Eta au? Begira bizaio zer abere ederra. Ezin billaliteke beste bat obe-  
 rik.  
 Etzait komeni; kolore argiegia dauka.  
 Kolorea etzait gustatzen.  
 Burua ez darama ongi.  
 Goazen beste ikullura. Ez bedi gerturatu, zeren zuritxo orrek osti-  
 koka eman oi du.  
 Beor begillun ori gañgañekoa da. Gustatuko zaio segurki.  
 Etzait disgustatzen.  
 Zenbat urte dauzka zaldi orrek?  
 Bost urte dauzka.  
 Aoa ikusi deiogun.  
 Txit gaztea da.  
 Probatu nai du? Ikullutik aterako det.  
 Berealaxe silla paraeraziko diot.  
 Illean igo deiola aurrena mutillak.  
 Gero nik igoko diot.  
 Erabilli erazi egiozu pausuan, trotean, galopean, bridari lagata, esku-  
 pe guztian.

Pauso ona dauka.  
 Ongi presentatzen da.  
 Geldi zaite; jatxi zaite; ni noa probatzera.  
 Silla jarri egiozu.  
 Ao gogorra dauka; ez dauka aorik.  
 Sutzua da.  
 Desbokatzen da.  
 Izutia da; txit berekoia.  
 Erren piska bat egiten du.  
 Ez jauna, barkabizat; abere txit ederra da; sinistu dezakit.  
 Zenbat nai dezu bera gatik?  
 Erantzuten didazu ez daukela gaitzik, maña txarrik?  
 Erantzuten diot ez duela maña txarrik eta sano dagoela.  
 Jarri dezagun agiri bat, eta kondizio oriekin artzen det.  
 Erregutzen diot bota deiela begirakun bat zaldi pare oni.  
 Bi abere gañgañekoak dira.  
 Prezioa neurrian izango dala uste det.  
 Salduak daude; perratu bezin laister bidalduko ditut erostunari.



## Kuadro saltzalle bat

Baldin kuadro saltzallean itzai sinistuko balitzateke millaka aziko  
lirateke pintore andian obra maisuak.

Ni ez naiz orrelako trafikantea.

Agertzen diodan kuadroa Korrejioarena da erriko aurreneko artistak  
aseguratzeko dutenez.

Egin beza mesede irakurtzeaz berri onetan kuadroaren kondaira;  
gañerakoa billatuko du Vasarin.

Eta kuadro au zeñena da?

Pintorean gañean ez daude batean iritziak; baña guztiak diote kua-  
droa miragarria dala.

Begiratu bizaie itxura oien egoerai, arpegi ta oialen bizitasunai.

Kuadrotik kanpora irteten dala ez lezake esan zaldi basauntz gisako  
ori?

Emen dauka lente bat; esamiñatu beza.

Baña ekibokatua zaude; urliaren kopi bat da.

Oialak gogorak dakazki.

Kolorea mesprezigarria da.

Bere meritorik andiena dago konpontzean.

Dizipulu baten ikastea baizik ezta.

Emen dago bat gauza on asko dauzkana.

Itzalen bariedadeak erakusten dute Leonardo de Vinziren mota.

Kuadro oiek ol gañean Veneziako eskolakoak dira.

Ez det sinistatzen zeren veneziatarrak piñuzko olaren gañean pinta-  
tzen zuten.

Zearkako buru oiek biak txit ederrak dira.

Pintore idor bat da.

Baña egiten duenean etzaio ukatu bear delikadeza ta bizitasuna.

Dibujoaren garbitasuna gatik, konpontzea maitasuna gatik eta bere  
obra guzietan ikusten dan armoni graziosagatik merezi ditu elojio andiak.

Kolore emalle bat ederra da.

Koloretzea txit ongi entenditzen du.

Freskuan txit ederki pintatzen du.

Aragiak bear bezela pintatzeko ezta besterik igoalatuko duenik.

Aur ori etzait gustatzen.

Paratzen dituen kanpoak ez daude diran bezela.

Erretratuak txit ongi ateratzen ditu.

Bere erretratuak afamatuak dira.

Kanpoak txit ongi pintatzen ditu.

Maisuari gañ egin dio askoz ere.

Flamenkotarren eskolari darraikio.

Ezin obeto pintatu liteke.

Itxasoko gauzak azierto berekin egiten ditu.

Ikusi ditut bozetoak eta dibujoak bere eskuko plumaz.

Anziñakoa txit alai irudierazitzen du.

Tenploan egin dako kuadro bat erregalatu dio Akademiari dirudiena  
amalaugarren eunkoa.

Kobrean ere pintatu du.



## Udaberria

Ondo deseatua negoen udaberria allegatu zedin.  
 Udaberria da estazioetan atsegingarriena.  
 Geiena gustatzen zaidan estazioa da.  
 Udaberrian alegratzen da kanpoa.  
 Badiruri guztia berriz jaiotzen dala.  
 Geienean fresko egiten du udaberrian.  
 Mendiak estaltzen zituen elurra eguzkiak urtu du.  
 Beroak azierazitzen die zuaitzai motak irteten.  
 Zuaitz gustiak loraz zurituak daude.  
 Aize otzik ateratzen ez badu fruta asko izango da.  
 Estazioa txit aurreratua dago.  
 Animalitxo asko izango da aurten zeren ez dan izan negu otza.  
 Estazioa txit atzeratua dago.  
 Ezurrezko fruta guztia galduko da aurten.  
 Izotzak kalte asko egin die frutai.  
 Aize aundia dabil.  
 Udaberriko aizea da.

## Uda

Gaur egiten du udako eguna.  
 Igaz ez genduen izan udarik.  
 Bildur naiz aurten uda beroa izango degula.  
 Bero asko egiten du.  
 Zuaitz ostotzu onen azpian eseri gaitezen; txit itzal ederra ematen du.  
 Egarriz itotzen naiz; errekatxo artan errefreskatzera noa.  
 Ezeizu ur otzik edan; kalte egin dezakizu.  
 Ez da inport; ez naiz orren delikadua.  
 Soroak igitariz beteak daude.  
 Belarrak ebakiak daude.  
 Uztea ugaria izango da.  
 Begira egiezu galburu oriei; zer lodiak eta zer beteak dauden!  
 Gari ebakiak badaude.  
 Alako beroa egiten du eze!  
 Bai orixe; Kanikulan gaudeta.  
 Aizetxo au gustokoa da.  
 Goazen ibaira bañatzera.  
 Ez, oraindik lasterregi da.  
 Baskal aurretik ala ondoren joango gera?  
 Ez da komeni baskal ondoan bereala bañatzera.



## Uda azkena

Uda azkena da frutuen denbora.  
 Maztiak baño gauza alegreagorik ez da orañ ezertxoere.  
 Emen ardo onak izan bear dute.  
 Emen daukazu mazti zati bat oraindik bere mordoakin.  
 Ardo zurian uztea beranduago egiten da.  
 Udazkeneko enkantuak laister bukatuko dira.  
 Egunak asko laburtzen dira.  
 Ostoak oritzen eta erortzen ari dira.  
 Egun bakar batzuek baizik etzaizkigu gelditzen onak.  
 Goizak eta arratzaldeak otzak egiten ditu.  
 Gauak luzeak daude.  
 Arratzaldeko lauretan ezin ikusi da.  
 Bostetarako argia piztu bear da.  
 Sua gustatzen asi da.  
 Beleak koauka asi dira.  
 Negua gerturatzen ari da.  
 Askoz obe; otza ohea da, laño itotzen duten oiek baño.

## Negua

Aurten neguak senti erazitzen du.  
 Neguan gaude.  
 Negua gustatzen etzait.  
 Neguak guztia moteltzen du.  
 Negua igaro balitz naigo nuke.  
 Neri etzait ori arkitzen; ainbat gustatzen zait negua nola uda.  
 Nola gustatu liteke negua?  
 Egunak laburrak dira; otza ezin agoanta liteke.  
 Su ondoan baizik eziñ ongi egon liteke.  
 Etzaitz keajatu; eguraldi ederra dago; ibilli zaite ta udan bezela arkituko zera.  
 Goazen trineoan paseo bat ematera; eguraldi berarizkoa dago; urte asko da onenbeste izoztu ez duela?  
 Oroitzen zera negu andiaz? Izotzak iraun zuen iru illabete gertu.  
 Bai, baño au ere txit gogorra da.  
 Patiñatzen badakizu?  
 Ez, baño gustatzen zait ibiltzen ikustea, bildur banaiz ere gertaera txarren baten testigu izatea.  
 Orain ez dago bildurrik; izotza txit zalla dago.  
 Tira tira, atoz; tximinia elurra ari danerako da ona.  
 Bildu zaite ongi ta irten gaitezen.  
 Egunak luzatzen asi dira.  
 Eguraldia beratzen ari da.  
 Eguzkia asi da pikatzen.  
 Udaberriko eguraldia egiten du.  
 Alaere izotza bart egin du.  
 Bideak izotzez eztaliak daude.  
 Ibaiak izotz ormak dakazki.  
 Izotza asten da kentzen.  
 Eguraldi txit biguñia dago esan liteke negua igaro dala.





## Baratza bat

### 1. Frutak.

Nai dezu baratzan jira bat eman?

Gustu aundiz.

Zer espaldera ederra!

Marrubiak bere sazoian daude.

Zer aranak dauden!

Eta geriza asko dauzkatzute?

Geienez faltatu dute.

Uste det piku, intxaur eta almendra asko izango dirala.

Nik ere ala uste det; baña nere baratzan ez daukat beñiere intxaur zurik eta ez almendrorik.

Kanpoko udarak eta sagarrak ez dute aurten frutarik eman.

Zer deitzozu maztiak?

Oraindik ez da juzgatzeko denbora.

Erri onetako matzak afamatuak dira.

Zure maztia toki txit ederrean dago.

Nere matzak besteak baño leenago eldutzen dira.

### 2. Berdurak.

Goazen berdurak ikustera.

Au zerbaz!

Etxean asko jaten degu.

Koliflorak ere badauzkatzu.

Esparragera ederra daukazu.

Illar oiek loran daude.

Beste leku batean bainan dauzkat.

Babarrunak erein dituzu?

Ernetaere badauzkat.

Batzuek ernetzen ari dira.

Or zer daukazu?

Tipulak.

Porruk eta batzurik badauzkatzu?

Gauza bearrak dira.

Erlo au espinakaz beterik dago.

Bestean alkatxofak daude.

Eta emen nere eskubian?

Babak eta aruntzago zanaoriak.

Ikusten det ensalada guzietatik dauzkatzula.

Letxuga, mulabelarria eta eskarola dauzkat.

Apiorik ez daukazu?

Barkairazu; marrubi orien atzetik daude deseaa al daikezun aiña.



## Jardin bat

Zure jardiña txit ederki kuidatua dago.  
 Ezliteke obeto kuidatutako jardiñik billatu.  
 Zure jardiñeroak elojioak merezi ditu.  
 Beraz txit kontentu nago; geiago eziñean entenditzen du bere ofi-  
 zioa.

Atoz lora oiek ikustera.  
 Gañgañekoak dira; txit ederrak dira.  
 Aurten lora asko da.  
 Narzisoak laister loratuko dira.  
 Erloitxo onetan tulipanak eta jazintoak daude.  
 Lora oiei nola deitzen diezu?  
 Au da krabelin bat; ura ranunkulo bat.  
 Utziko dirazu erramillate bat egiten?  
 Gusto aundiz; laguntzera noa.  
 Aurrena arrosak bildu ditzagun.  
 Bioleta dobleak jarri itzatzu.  
 Ezeizu astu jerania, zeñek ain usai ederra daukan.  
 Daliak, naiz usai gabe, begiak betetzen ditu; kolore guzietakoak  
 dauzkat.

Klabeliñak gustatzen zaizkitzu?  
 Bai ikustea, baña bere usaia ez.  
 Zer erramillate ederra!  
 Jeringilla bakarrik falta du.  
 Milla esker ematen dizkitzut.

## Kanpoa

Azkenik eldu da maiatza; igaro da estazio gogorra.  
 Azkenik egin dezaket nere kanpora joateko deseoa.  
 Bigar irtengo naiz kanporako.  
 Neretzat dauka kanpoak atsegingarri andia.  
 Urteko estaziorik onena errian igarotzea damuko nuke.  
 Ni itotzen naiz preso errian erdian.  
 Urrutira zuaz?  
 ... noa.  
 Uste det aizea mudatzeak osasuna biurtuko dirala.  
 Zer gustoa dan eguzkian irtera eder batekin muño lurrñ dun batean!  
 Belar oiek txit ederrak dira.  
 Presaka ari dira ebakitzen; eurian bildur dira.  
 Aurten zenbat lora dauden! Airea usandutzen dute.  
 Uste det fruta ugari izango dala.  
 Zein garbia ta osasungarria da kanpoko aizea!  
 Kanpoan disfrutatzen da libertade egjazkoa.



## Paseoa

Egun ederra.  
 Paseatzeko ezin izan liteke egun oberik.  
 Jira bat ematera joan nai dezu?  
 Aizea artzera goazen.  
 Jiratxo bat ematera goazen.  
 Gusto aundiz.  
 Bai orixe.  
 Zurekin naiz emendik minuto batera.  
 Zure agintera nago.  
 Zuk nai dezunean irtengo gera.  
 Zeñ aldetatik joango gera?  
 Ibai ondolik goazen.  
 Ibai ertzak txit atzegingarriak dira.  
 Zaldiz paseatuko ote giñake?  
 Zer deitzozu?  
 Baldin andre oiek joan nai badute kotxe bat artuko degu.  
 Bildur naiz bidean autz geiegi egongo dala. Eguraldi ain legorra  
 dago eze.  
 Ez aztu paraguasak artzera eguraldi txarraren bildurrez.  
 Bapozeko ontzian joan gaitzke...  
 Baita itzuli ere.  
 Idea txit ederra.  
 Paseo ori txit gustokoa da.  
 Txit laister egiten dan biajea da.  
 Orain goazen bide onetatik.  
 Zelai ori igaro naiago dezu?  
 Obe litzeke; ala itzalean ibilliko giñake.  
 Toki au txit egokia da; atzedan ezagun piska bat.  
 Belar gañean eseri gaitzen.  
 Txit bustia dago.  
 Txara onetan sar gaitzen.  
 Emen pasea gaitzke beti itzalean.  
 Bide txigor onetatik goazen.  
 Etxera biurtzeko biderik laburrena da.

Zuaitzak jartzen duten toloak eragozten dio eguzkiari bere erreñua  
 igarotzen.

Berandu ez da.  
 Goiz itzuli nai nuke.  
 Ni nekatua nago.  
 Ezin jarraitu dizut.  
 Orren presaka etzaitze ibilli.  
 Ordu erdiko bidea besterik etzaigu falta.  
 Ibaia berriz igaro dezagun.



## Eiza

Eizerako leku ona da au.  
 Aurkitzen dira bertan uratarik?  
 Zenbat eiz ill genduan emen igaz!  
 Galgoak eraman ditzagun erbi batzuek irtetzen badira ere.  
 Ez dirudi eguraldi ona.  
 Eizik ez da agertuko.  
 Basoan ala zelaiean ibilliko gera eizean?  
 Zeñ zakur ederra daukazun or!  
 Atso geldiera ederrak egin zidan.  
 Nerea ez dago orren ongi erakutzia.  
 Zure tiro biko eskopetaz kontentu zera?  
 Zer numeroz serbitzen zera?  
 Seikoaz.  
 Geiegi da; eiza purrukatzen dezu.  
 Perdigoiak aztu zaizkit.  
 Emen daukatzu; tako batzuek emango didazu.  
 Eskopetak karga ditzagun.  
 Aurten asko ill dezu?  
 Asko ez; badakizu eiztari ona ez naizela.  
 Ixo! Oskarrek zerbait agertu du; gelditua dago. Beajun deiala! Eper  
 bat da.  
 Billazak! Ekartzak!  
 Or paotx arte onetan dago eper banda bat.  
 Goazen ara.  
 Arrastoan parazu zure txakurra.  
 Aztarnan ez dago.  
 Utzi egiozu; karanba! Lastima da aifñ urruñ joan dirala.  
 Sar gaitezen txara orretan, zergatik or etzan dira.  
 Begira; gordeta dago.  
 Faisanari tiraiozu.  
 Sasi orretan gelditu da.  
 Galtzea lastima litzake.  
 Nere txakurra egaerazitzera dijoa.  
 Ollagor bat ill det.

Nai dezu atzedan piska bat erreten onetan, mutillak eiza ekarri bitar-  
tean?

Gusto andiz, txit bero dago.  
 Gaur gauean joango naiz aizetan zelatan egotea; guardak esan dit  
 konejuak ugari daudela.  
 Aditzen dezu tiro ori?  
 Luis da txoriai tiratzen.  
 Emen dago beste tranpa bat; kosario oiek dira peste egiazko bat.  
 Nik arrapatzen badet bat!  
 Boziñaren otza aritzen da urrutira.  
 Bai: M-da otzo eizean.  
 Batzuek ikusi dira... basoan.  
 M-dauzka zakur asko.  
 Ogei erbi zakur baño geiago dauzka.  
 Eiza da bere pasioa.  
 Estantearen ertzetik itzuliko gera etxera.  
 Gusto aundiz; gaua gerturatzen ari da, eta eiztariaren goseaz nago.  
 Juan, eiz au artzazu.  
 Biurtu baño lenago eskopetak deskarga ditzagun.



## Arrantza

Arrantza gustatzen zatzu?  
 Nere pasioa da.  
 Non ariko gera? Estantean ala ibaian?  
 Estantea arraies betea dago.  
 Kañaz arrantzatzen dezu?  
 Denborapasa gaiztoa da, baña aitortzen det, gustatzen zaidala.  
 Estantean ari gaitzke kañaz beroak dirauen bitartean, eta gauaz  
 altxatuko ginduzke sareak.  
 Askotan sareaz arrantzatzen det ibaian.  
 Esparbelaz arrai andiak arrapatzeko bentaja dago.  
 Zer arrai mota dauzkatzu emen?  
 Salloak eta karpak ugari dauzkagu.  
 Emen dauzkatzu amu mota guzietakoak, eta txitxarak zebatzeko.  
 Eskaluak ongi eltzen diote amuari.  
 Sollo bat arrapatu det.  
 Eta nik karpa txiki bat.  
 Itxozu; beste batek eltzen dio amuari.  
 Alaxen da; tenka ederra!  
 Kaña botazu.  
 Ez dago pronto; botazu zurea.  
 Ederki; emen ateratzen det perka bat.  
 Kañaz arrantzan alaia zera, baña nik ez det entenditzen.  
 Sarez ari zaite bada.  
 Obeto izango da; goazen ara.  
 Atera ezazu; sarekada ederra.  
 Emen irtetzen dira gobioak, barbutxoak eta aingirak; lanperna batzuek  
 ere badaude.  
 Ariñ, etxera; ez da arrai presko prijitutakoaren platera bezelakorik.

## Erri bat ikusteko

Esairazu non billatuko nuken erria erakusteko Zizerone bat.  
 Baldin nere konpañia gustatuko balitzatzuke, poz andi bat izango  
 nuke neronek giari serbitzea.  
 Molestatzen ez bazaitut gustoz artzen det zure oferta.  
 Zeremoni bage trata nazazu. Aurrena erakustera noakizu paseorako  
 bidea.  
 Egizu mesede errex ikasiko dedana artzeaz, bakarrik noanean galdu  
 ez nadin.  
 Kale onetatik irtenda arzazu kaitik eskuitara; azkenera allegatzean  
 arkituko dezu kale zabal bat plazara eramango zaitu dana; eta an ikusiko  
 dezu paseoan bukatzen dan kalea zuzeneran.  
 Zubi ederra da; bederatzi arku dauzka.  
 Txit zelaia da ta azera zabalak dira.  
 Berago dijoatz zinzilikako bat egitera.  
 Ibaiaren beste aldetik dago barrio bat fabrikaz beterik.  
 Lenagoko fortifikazioak urrutirago eraman dituzte.  
 Kaleak zuzenak dira eta arri ongiro onekoa.  
 Garbiak ere dira; urak alkantarillatetik dijoaz eta egunero kentzen da  
 kontuz urdakeria.  
 Erri guzia agiri danez ibaiaren eskuitik dago.  
 Zenbat dauka inguruan?  
 Bi legua eta txit jendez betea dago.  
 Iru urtetik onera edertu da txit.  
 Katedrala irikia dago, sar gaitezen.  
 Arkitektura gotika gañañekoa dauka.  
 Begiratu egiezu koruaren edertasunari, organuari eta elizako maior-  
 domoen alkiari.  
 Eskulturak miragarriak dira.  
 Ikusitzatu alabastrozko itxura eder oiek eta zillarrezko Birjiñarena.  
 Bidrieratako pinturak gañañekoa dira.  
 Pulpittoa orren gustu txarrekoa izatea lastima da.  
 Kanpanarioa altura txit andikoa da.  
 Fatxada oraingo denborakoa da.  
 Plazaren erdian dagoen iturria txit ederra da.



Baldin nekatzen ez bazera goazen orain beste gauza ikusgarrietara,  
zen (sic) diran dirua egiten dan etxea, liburutokia, teatroa eta museoa.